

HIRUGARREN ATALA: LEIOA ARO MODERNOTIK GAUR EGUNEKO AROAREN ALDAKUNTZEN HASTAPENETARAINO (XVI-XVIII. MENDEAK)

ndoren, gure elizatearen historiaren bilakaera aztertuko dugu sortu zenetik 1875a arte. Historia aldiz aurretik ezarritako aldietan sailkatzerik ez dagoen arren, beharrezkotzat jotzen dugu 1875an geldialdia egitea, gure iritziz, Leioa bestelako aldi bati lotu zitzaiolako handik aurrera. 1876an amaitu ziren gerra karlistak, eta horrek inguruabar berriak eragin zituen euskal herriotako araubide politikoan: monarkia berrezarri zen. Aldi berean, industrializazioaren lehen urratsak agertu eta biztanleria izugarri hazi zen. Leioako ingurumaria, lehenbizi baina ez azkenik, goitik behera bilakatu zen.

ERREGIMEN ZAHARRA

Demografia

Erregimen Zaharreko aldiaren ezaugarri behinenak honako hauek dira: jaiotza- eta heriotza-tasa handiak eta demografiaren hazkunde txikia. Hala ere, aldi horretan, biztanleen egiturak aldaketa ugari izan dituen.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu, Leioa 1526an erakunde bereizi gisa aldarrikatzeak berez dakarrela demografiaren hazkundera. Alabaina, hazkunde ez zen XVI. mendearen bigarren mende laurdena arte antzeman, eta motelaldi bizia izan zuen 1599-1602 urteetan, hondamenezko heriotza-tasa jazo baitzen Bizkaiko itsasaldeko eremu osoan. 1597an, izurria zabaldu zen Bizkaia osoan, eta eragin latzak izan zituen Abando, Durango eta Lekeitio. Leioari dagokionez, 1598an, izurria Leioa, Sondika, Loiu, Erandio, Getxo, Sopela eta Berangoko elizateetara heda zedila saihestearren, zaintza-sistema antolatu zuten, Juan Ruiz de Anguiz sindikoaren ardurapean. Urriaren 6an, erabaki zuten Asuako portuan deskargatzea Portugaleteko barratik etortzen ziren salgai guztiak. Horrek esan nahi du izurria ez zela zabaldu Erandion eta Leioan, portua irekita baitzegoen. Baina arretazko neurri oro ez zen nahikorik.

Krisialdiaren ostean, bizkorraldia etorri zen, luberritzeko eta artoa landatzeko lursail asko libre geratu baitziren, eta, era berean, laboreak paduretara zabaldu baitzituzten. XVII. Mendearen hasieran, baina, krisiak berriro egin zion eraso Leioari. Nolanahi ere den, XVIII. mendearen hasieran, biztanleria % 37 hazi zen, mendearen bigarren erdialdeko krisialdiaren aldean. Aldi horretan, artoaren iraultza ez zen nahikoa eta, hori dela kausa, gero eta ezkontza gutxiago eta ezkongee gehiago izan ziren, jaiotza-tasa kontrolatzeko.

Biztanle erroldak

Orain arte, krisialdiak eta susperraldiak aipatu ditugu, baina, zenbat biztanle zituen Leioak? Zelan bilakatzen zen biztanleria? Hori jakiteko, nahikoa dugu fogeraoiei erreparatzea, hau da auzotarren zerga-zenbatzeei.

Hainbat ikerlarik aztertu ditu fogeraoak eta zenbaketa horiek oso datu jakingarriak eman dizkigute. Horien arabera, 1515ean, Erandiotik bereiztu baino urte batzuk lehenago, Leioan 22 fogera zeuden. Garai hartan, zerga-fogera bakoitzak 3 etxe edo familia biltzen zituen, eta familia bakoitza bost kidek osatzen zuten, gutxi gorabehera. Hortaz, Leioako biztanleria 330 lagunek edo osatuko zuten. 1577ko fogeraoak 62 urte lehenago egindakoaren datu berdinak eman zituen. Ondorio horiek atera dituzte Basáñez eta Vargasek, gure udalerrinari buruzko azterlan monografikoak egin dituzten autoreek. Gure iritziz, ordea, 1515eko datuak ez dira zuzenak, eta, segurutik lagun gutxiago bizi ziren Leioan. Izan ere, oso zaila da 62 urtean, demografia haziz zihoan garai batean, Leioako biztanleria zegoen-zegoenean geratzea. Gainera, Vargas bera kontraesanean erori zen; alde batetik, esan zuen 150etik gora lagunek, 30 inguru baserritan, osatuko zutela Leioako biztanleria Erandiotik banandu zenean, eta bestetik, esan zuen 330 biztanle zeudela 9 urte lehenago. Guk ehun eta berrogeita hamar biztanle zeudela uste dugu, areago kontuan hartzen badugu parrokiaren jardunbidea arautzen zuten Sinodo Konstituzioen arabera, apaiz batek bete behar zituena erlijio-beharrizanak domeka, jaiegun eta astean behin, ehun fededunetik gora zeuden leku guztietan.

1685ean, 82 fogera zeuden, hau da, 360 biztanle inguru. 1704ko abuztuaren 20an egindako zenbaketa arabera, 96 baserri zeuden, honako auzune hauetan bilduta: Landabaso, Libao, Ubeda, Zuazo, Peruri, Basayas, Artatza, Ondiz, Aketxe, eta Udondo⁵. 1746ko abuztuaren 7an (urte hartan, José de Jáuregui eta José Ramón de Ascarza ziren fiel errejidoreak) beste fogerao bat egin zen, eta horren arabera, 89 etxe zeuden zutik Leioan, eta beste 7 eraitsita; orotara, 122,5 fogera⁶. Leioako fiel errejidoreak hautatzeko liburuan, 1784an, elizaterako apaiz gehiago eskazten zituen dekretua jaso zen, bertan bizi baitziren "bostehun eta gehiago sinestun" ⁷. Datu hori bat dator Floridablancaren 1787ko erroldarekin. Autore horrek 584 biztanle zeudela (eta horietatik 582 nekazariak zirela, apaiz bat eta benefiziodun bat) adierazi zuen. Azterlan horretatik, beste hainbat datu ere atera daitezke: emakume gehiago ziren, eta gizonak baino luzaragoan bizi ziren, eta biztanleriaren piramidearen adina nahiko gaztea zen. Halaber, 25 urtetik beherako gizon ezkongabe asko zeuden, baserri-giroko gizarteetan oso zaila baitzen aitaren etxetik askeko familia-taldea eratzea. Errenta ordaintzen zuten etxeen errolda egin zenean, 1795eko otsailaren 2an, 98 etxe zeuden Leioan, eta 87k ordaintzen zuten. Urte horretako maiatzaren 10ean, baserrien jabe eta kolono edo maizterrak haiek ordaintzen zituzten errentak eta mendiek sortzen zituzten mozkinak, alokatu gabeko baserriek sortzen ei zituzten errenten zenbatespena egin zen⁸.

1810ean, Thouvenot-en erroldaren arabera, 600 auzotar bizi ziren elizatean. Hainbat autorek emandako datuen arabera, kopuru hori handiegia da, batik bat kontuan hartzen badugu XIX. mendearen hasieran biztanleria geratu egin zela; ondoren, berriro bizkortu eta bilakaera motela izan zuen, baina hainbat atzerapenek eteten zuten bilakaera aldizka. 1825eko Poliziaren erroldaren arabera, 434 biztanle zeuden, 96 etxetan⁹. XIX. mendearen erdialdetik aurrera, biztanleak oso bilakaera apala izan zuen: 600 biztanle zeuden 1857an, 643 1860an eta 781 1877an. Urte horrez geroztik hazkundeak izugarria izan zen, eta hurrengo hamarkadan (kontuan har dezagun 1880ko hamarkadatik aurrera hasi zirela industriak ezartzen eta, beraz, etorkinak Leioara iristen), Leioak 943 biztanle zeuzkan. Izan ere, 1890 inguruko biztanle-kopurua (950 biztanle) bikoiztu egin zen hamarkada batean.

Dentsitatea

Leioaren berri ematen duten lehengo agirien esanetan, bertako gizataldeak landa-unitateetan edo baserri bakartuetan bizi ziren. Horietako batzuek, denbora igaro ahala, talde edo auzoak osatu zituzten. Hala ere, auzo horiek guztiak oso sakabanaturik zeuden, eta, gehienetan, bakarturik. Esate baterako, 1787an, Leioak 60 biz./km²-ko dentsitatea zuen. Hirurogeita hamar urte geroago, 1857an, 70 biz./km²-ko dentsitatea zuen, hots, itsasadarraren ertzean kokaturik zeuden herrietakoaren antzera.

Ezkontzak

Sarritan, ezkontza-adinera iritsita (XVIII. mendearen amaieran, 26 gizonezkoentzat eta 25,8 emakumezkoentzat; oso adin zaharra beste alde batzuetakoaren aldean, eta egitura sozioekonomikoarekin zuzen-zuzenean lotuta), leioaztarrak ezkondu ohi ziren. Ezkongabeen arteko ezkontza zen nagusi baina beste ezkontza batzuetan, ezkontideetako bat edo biak alargunak ziren, baita hirugarren ezkontzan. Beste alde batetik, behin betiko ezkongabeen kopurua nahiko txikia zen. Ezkontideen jatorriari dagokionez, gehienak Leioakoak ziren, baina ondoko elizate edo hirietatik ere ezkontzen ziren Leioara, batez ere Erandio, Getxo eta Berangokoak. Manuel Vargas Alonsoren arabera "haietara [hiri eta beste elizate batzuk] merkatura edo abereen azoketara joaten zen jendea, marinela lanetan ibiltzen zen kasurako, edo haietako mugetatik ibiltzen zen ondoko lursailak goldatzen zituenean. Eta, jakina, senideak izaten ziren guztietan. Horrek guztiak, nekazaritzari loturiko gizarte batean, biztanleek mugikortasun txikia zuten gizarte hartan, giza harremanak ahalbidetzen zituen, eta asko ziren norberarenaz besteko herri batekoekin egindako ezkontzak"¹⁰. Ezkontzak udaberrian egin ziren batez ere, eta ez Garizuman. Urtean egiten ziren ezkontzen kopurua oso aldakorra izan zen mendeetan, baina, jakina, ezkontzak urritu ziren sasoi latzetan.

Erregimen Zaharreko ezkontzak ez ziren, oro har, bikotea osatzen zuten batak bestearengan sentitzen zuen amodioaren berehalako ondorio, ezpada, familiaren jabetza iraunkortu eta gehitzeko estrategia hutsa. Hala, maiz ezkontzen ziren gizarte-maila bereko pertsonak, eta antzeko ondasun-kopurua ematen zioten ezkontzari. Senar-emazte berrien egoera ekonomikoa oso ona ez bazen, ezkonsaria erabiltzen zen jabetzen gaineko zama konpentsatzeko. Ezkontzaren ostean, ezkontideek harreman

estua lantzen zuten, nork bere familiarekin, eta familiei itzultzen zitzaizkien bakoitzaren ondasunak ondorengorik izan barik hilez gero. Ondasunen haga babesteko kezka horrek agerian uzten zuen familiaren osotasuna, kide guztiek eta beren jabetzek osaturiko familiaren erabatekotasuna.

Bikotekideen arteko harremanei dagokienez, gehienetan "harik eta heriotzak banantzen gaituen arte" esaera betetzen zen. Ezkontideak bizi ziren aldian irauten zuten ezkontzek, ezkontideen arteko gatazkek banantzea eragiten ez bazuen. Hala ere, banantzeak oso bakanak ziren. 1761ean, Leioako emakume batek senarrari egin zion aurka "tratu txar, irain eta elkarrekin bizitzea ezinezkoa zelako"¹¹. 1819an, beste emakume batek honakoa adierazi zuen: "hitzezko eta egintzazko tratu txarrek behartu ninduten haren etxetik eta harekin egotetik banantzera, eta auzitara eramatera mantenua eskatzearren"¹².

Jaiotzak

Ezkontzak direla tarteko, jaiotza-tasa %3 eta 5 artekoa izan zen XVII. mendean. Apurka-apurka gutxituz joan zen eta %3ra iritsi zen industrializazioaren aurretiko garaian, XIX. mendearen amaieran. Ildo horretan, baditugu datu zehatz batzuk jaiotzen kopuruak gora eta behera (haurren heriotza-tasak ere gora eta behera egiten zuelako, hurrenez hurren) egiten zueneko aldi hori azaltzeko. 1635-1645 aldian, 4 bataio baino gutxiago egin ziren urtean. Hurrengo urteetan, kopuru horrek behera egin zuen, baina 1655ean 5era igo zen. 1675-1680 urteetan, behera egin zuen berriro, eta XVII. mendearen amaieran, 12 bataio egiten ziren urtean. Urte gutxi batzuk igarota, bataioen kopurua bikoiztu egin zen, baina gorabehera handiak izan zituen XVIII. mende osoan, nekazaritza krisialdi eta gerra gatazkek zirela eta. 1880ko hamarkadatik aurrera, bataioen kopurua egonkortu zen eta 25 bat izaten ziren urtean, inmigrazioaren eraginez.

Neurri antikonzeptibo artifizialik izan ez arren, jaiotzen kontrol naturala agerikoa zen, haur gehienak urte-sasoi jakin batzuetan jaiotzen baitziren, nekazaritza-ekoizpenaren zikloaren eredura. Nekazaritzan oinarrituriko gizarte hartan, emakumeak ezin ziren haurdun egon euren esku-lana lurra lantzeko behar zen sasoiaren. Horrela, XVII. mendearen erdialdean, jaiotza gehienak hiru alditan izaten ziren: martxo-apirila, ekaina-uztaila eta iraila-urria; XVII. mendearen amaieran, apirilean eta maiatzean metatu ziren, eta, apurka-apurka, familiaren ekonomia nekazaritzaren mendekotasunetik libratu ahala, haurrak urte osoan jaiotzen hasi ziren.

Beste alde batetik, emankortasun-tasari dagokionez, senar-emazteek 4 edo 5 seme-alaba zituzten.

Seme-alaba ez-legitimoak

Familiak atsegin handiz hartzen zituen jaioberriak; ez zen hori gertatzen, ordea, haur horiek baziren elizak eta gizarteak onartzen ez zituzten harremanen emaitza, batez ere ama ezkongabeen seme-alabak baziren. Amek askotan abandonatzen zituzten ume horiek. Beste elizate batzuetako neska asko Leioan erditu ziren, eta ume ez-legitimo asko abandonaturik utzi zituzten Ondizko atean; Leioan, berriz legitimotasunik ezaren tasa %2tik beherakoa izan zen, krisialdi edo gerra garaian izan ezik, eta

beheranzko joera izan zuen. Baliteke beste hiri batzuk hurbil egonik, hala nola Bilbo edo Portugalete, non anonimatuari eustea askoz errazagoa baitzen, "bekatari" leioaztarrak seme-alaba ez-legitimoak beste leku batzuetan abandonaturik utzi izana.

Heriotzak

Leioako heriotza-tasaren azterketa zail samarra da, 1837a arte ez baitzen heriotza-agiririk egon. Hori dela eta, Bizkaiko jaurreriko eta ondoko lekuetako datu orokorretara jo behar dugu eta horiek gurera estrapolatu, baina kontuz ibili behar da datuak erabiltzean, eta, gainera, argi utzi behar da gutxi gorabeherako kopuruak direla.

Badirudi heriotza baino jaiotza gehiago zirela 1650 baino lehen, eta gehiegizko heriotza-tasa hori, antza denez, nekazaritza krisialdien eraginez gertatzen zen. Hain zuzen ere, XVII. mendean, dieta hobetu zela eta (komunikazio bideak hobetu ziren, baita bilketa-sistemak eta aleen merkataritza), heriotza-tasa izugarri beheratu zen. Datuak azter ditzakegun datatik aurrera, heriotza %30-40koa zen, batez ere 0 eta 10-12 urte bitarteko adin-zerrendan. Herioak ahulenei eraso egiten ziren, eta nabarmen areagotzen zen gerra gatazkak izaten zirenean (horrela gertatu zen Lehen Karlistaldian) edo sarritan zabaltzen ziren baztanga, elgorri eta kolera izurri hilgarriak agertzen zirenean (bizi-bizirik izan ziren 1854-55ean). Heriotza-tasa horiek, oso handiak izanik ere, industrializazioarekin batera areagotu ziren, jendepilaketak, elikadura txarrak eta higiene eta medikuntza neurririk ezak bultzaturik.

Demografiaren egitura

Beste alderdi jakingarri bat biztanleriaren osaera dugu. XVIII. mendearen amaiera aldera, oso presio demografiko apala zegoen Bizkaia osoan, eta biztanleen piramidea alderantzikatuz hasi zen. Horrela, adin nagusiko taldeak gailentzen hasi ziren, lehen aipatu dugun haurren heriotza-tasa oso handia zelako. XIX. mendean, egoera orekatu zen, eta sexuen banaketari dagokionez, emakumeak ziren nagusi.

EKONOMIA

Nekazaritza

Nekazaritza gure udalerrriaren bereizgarri izan da mende askotan, baina alderdi hori jorratzen hasi baino lehen, aipatu behar dugu Leioako elizatea kalitate ertaineko lur menditsuan kokaturik dagoela. Hala ere, XVIII. mendearen erdialdean, eta areago aurreko garaietan, biztanleen %99,6 nekazaritzan aritzen zen; eta egoerak bere horretan iraun zuen XIX. mendean.

Nekazaritza ekoizpenaren ezaugarri nagusia zerealen defizita izan zen denbora luzean; hala ere, gorabehera handiak izan zituen denbora igaro ahala. 1450-1570 aldiko oparoaldiaren ostean, iraupen-krisialdi latza etorri zen 1580 eta 1610 artean, eta egoera apurka-apurka suspertuz joan zen XVII. mendearen erdialdera arte. Hala ere, artean ekoizpen-maila txikia zenez, ez zen demografiaren

hazkunderik gertatu. XVII. mendearen hasieran, ordea, egoera biziki aldatu zen artoari esker. Artoa etortzeaz batera, aziendak izugarri handitu ziren, zereal berria pentsu gisa erabiltzen baitzen. Beste alde batetik, Leioako lur beheare eta hezeetan, artoak sagarrondoak ordeztu zituen apurka-apurka, eta laboreen txandaketa erabiltzen hasi zen. Beraz, susperraldia hasi zen; landu gabeko lurrak erabiltzen hasi ziren eta ongarri naturalak baliatzen. Gainera, krisialdiak merkataritza eta burdingintza jo zituen, ekonomi jarduera bestelakotu eta jendea lurrak erosten hasi zen, balio zurrak zelakoan, baina batzuetan espekulazioa eta zorpetzea ekarri zituen. XVIII. mendean, herri-ondasunak gutxitu ziren, eta, era berean, lur landuak handitu, baita haien prezioa garestitu ere. Ekoizpena modu neurritsuan hazi zen eta landatzeko teknika berriak erabiltzen hasi ziren, bi uzta zereal eta beste bat arbi atsedendian, abuztutik otsailera. Patatak ere hasi ziren landatzen. Beste alde batetik, laboreak zabaldu zirenez, aziendak urritu ziren neurri berean. Ingurumari horretan, bitartekariak agertu ziren, kanpoko abelburuak ekartzeko, hirietan gero eta okela gehiago eskatzen hasi ziren eta. Lehiakortasuna baserriarren kalterako izan zen, argi eta garbi, ordura arte eurek hazten baitzituzten abereak baserrietan jateko nahiz abereez hornitzeko. 1820 eta 1869 artean nagusi izan zen politika protekzionistak labore lurrak hedatzea ahalbidetu zuen zerealak inportatzeko beharra saihestearren. Horri esker, zerealak ekarri ziren iraupen-krisi larri-larriak gertatu zirenean.

Nekazari-familiak beharrezkoak asetzen ahalegintzen ziren merkatura joan beharrik izateke, baina elikadura askotarikoa izan eta nekazaritza jardunean garrantzia galdu zuen neurrian, nor bere burua aski izate hori galdu zen apurka, eta familien ekonomia nekazaritza prezioen eraginpean suertatu zen, eskaintza eta eskariaren, gerra gatazken eta tokiko gertakizunen mendera.

Teknikak ez zuen aurrerapenik izan XX. mendea arte. Betiko nabardun goldea erabili zen zelaietan, eta idiak tiratzeko. Aldapetan edo lur gogorretan, ordea, laia, aitzurra eta aitzur luzea erabili ohi ziren. XIX. mendearen amaiera arte, karea eta simaurra erabili ziren ongarri, eta handik aurrera, geroago ikusiko dugun legez, ongarri kimikoak erabiltzen hasi ziren.

Halaber, jakin behar ditugu lurraren jabetzaren ezaugarriak. Lursailak hainbat zabaleratakoak ziren: Lehenengoa, lursail handia da, oro har, maiorazkoaren araubidearen eredura erabilia. Estatutu juridiko berri hori XIV. mendean sortu zen, eta horri jarraiki, lursailak familiari atxikita geratzen ziren eta ezin besterenduzko bihurtu ziren, hau da ez zegoen haiek saldu ezta alokatu ere aldi luzeetan (enfiteusis izenekoa), ezpada, oinordekoari bakarrik laga. Sistema horren arabera, izatez nobleen onibarrak sendotu, banaketa saihestu eta metaketa ahalbidetzeko taxutu zen arren, XVI. mendean erabili zen Euskal Herrian biztanle lar metatzeak eragin zitzaizkien arazoak apaltzeko, bizitzeko bitartekoak nahiko urriak baitziren garai hartan. XVIII. mendean, nekazari askok bildu zituzten zenbait baserriarriko ondasunak eta maiorazkoa eratu zuten haiekin guztiekin, eta, hala, jabe handi bilakatu ziren.

Aurrekoa alde batera utzita, nekazari dirudunen lursail ertaina eta nekazari apalen lursail txikia ziren nagusi Leioan. Batzuetan, lursail ertainak ere maiorazkoaren pekoak ziren. Ondasunak oinordeko bakar batentzat, premuarentzat, zirenez, bigarren semeek emakume oinordeko batekin ezkondu behar zuten, etxea eraiki haren kontura, atxikirik ez zegoen familiaren etxe batean bizi, atzerrira joan edo erlijio-ordenaren batean jardun. Lursailaren zabalera txikia izanik, maiorazkoa ezin eratu zenean, seme-alabak atzerrira joaten ziren, edo administrazio-karrerari ekiten zioten Gortean. Beste batzuetan, sarri askotan, oinordekoek ez zuten etxe edo lursailaren jabe izateko modurik; halakoetan, errentamenduan hartzen ziren. Izan ere, Leioan, lur eta baserrien maizter asko izan zen.

Lursailen jabeak, batez ere lursail txikiena, ez ziren beti berberak izan. Krisialdian, lursail txikien jabeek egoera zailari egin behar zioten aurre, eta zorrak pilatu ostean, printzipala izeneko mailegua eskatzen zuten. Maileguaren ordain gauzak edo dirua ematen ziren, eta korrituak ordaindu behar ziren urtean, oro har, maileguan eskaturiko zenbatekoaren %3 edo %5. Hasiera batean, zordunak korrituak ordaindu besterik ez zuen egin behar, baina askok eta askok hartutako zorra ezin kitaturik ibiltzen ziren, eta zorra gero eta handiagoa izanda, errolda betebeharrak bihurtu zen, hau da, korrituak -eta batzuetan printzipala ere- epe finkoetan ordaindu behar ziren. Askotan, parrokiako lantegiaren administratzaileak edo etxezainak aritzen ziren bitartekari-lanetan jabeen (ugazaba laikoak eta elizjendea) eta maizterren artean, errolda kontratua egiteko orduan. Horrela, lursail handien jabeek, merkatariek eta errentatzaileek probetxu handia ateratu zioten XVIII. mendeko krisialdiari, ezen zorpeturik zeuden nekazariak, jateko eta landatzeko ale barik gertatzearen beldurrez, kreditu berriak eskatu eta, azkenean, lursaila bera ere galtzen zuten. Gauzak horrela, aberastasuna berriro banatu eta bestela metatu zen. Gainera, eroste-ahalmen nahikoa eskuratzen zuten jabeak Getxora edo Portugaletera joaten ziren eta Leioako baserriak alokatzen zituzten.

Abeltzaintza

Etxeko abereak haztea funtsezko osagarria zen baserriaren ekonomian. Abereak garraiorako eta nekazaritza zereginetarako erabiltzen zen, eta jateko okela ateratzen zuten. Leioan, azidaren espezie behinenak, garrantziaren arabera, honako hauek ziren: behi-azienda, txerri-azienda, ardi-azienda, zaldi-azienda, ahuntz-azienda eta asto-azienda. Jende askok zeuzkan behi-aziendak, baina artalde handiak zituzten jabe gutxi batzuk besterik ez zeuden.

XVII eta XVIII. mendeen hasieran, azienda-tratu asko eta asko egin ziren; nekazari apal askok ondasunak hipotekatzen zituzten abelburu bat edo beste erosi ahal izateko, baina abereen hazkuntzan hasteko biderik ohikoena admeteria izenekoa zen. Admeteria-eskribura zela medio (notarioen protokoloetan oso arrunta da agiri hau) azidaren jabeak, oro har herriko dirudunetako batek, beste pertsona bati lagatzen zizkion azidak, eta hori abereez arduratzen zen. Jabeak, abereen mantenu gastuak aurrezteaz ez ezik, irabazien erdia poltsikoratzen zuen, baina gastuak erdibana egiten zituen animaliak gaixotu edo hilez gero.

Aziendak, nekazaritzaren moduan, eragin handiko arriskuen mendekoak ziren, hala nola, bazkatzeko pentsuaren eskasia edo maiz erasotzen zieten gaixotasunak, abereen kopurua berehalakoan endurtzen baitzuten. Hori zela eta, abeltzainak elkartzen saiatu ziren arin bai arin, onurarik ateratzeko nekazaritzaren aldean; izan ere, nekazaritza mugarik gabe zabalduz zihoan eta ordura arte animaliei bazka emateko erabiltzen ziren lurra kendu zizkien abeltzainei, haietan landareak ezarri eta etengabe hazten zen biztanleriaren elikadura-beharrizanei erantzuteko.

Horregatik guztiagatik, XVIII. mendearen amaieran, aziendak aseguratzeko ermandadeak eratu ziren. Ermandade horiek elkarte aseguratzaileak ziren eta kalte-ordainak bermatzen zituzten, abeltzainak dirukuota bat ordainduz gero aurretik. Leioaren ondoko Getxo herria izan zen aurrendaria gai horretan, 1788an, mota horretako ermandade bat baitzeukan. 1811n, Leioan 2 konpainia zeuden: bata 14 auzokidek osatzen zuten eta beste bat Udondo, Aketxe, Ondiz, Artatza eta Mendibil auzoek. Geroago eratu ziren elkarteak herriaz harako jardunean ibili ziren.

Gaur egun igartzen zaila izan arren, abeltzaintzak berebiziko garrantzia izan zuen Leioan. Horren froga nabaria dugu, XIX. mendearen amaieran, udalerrria beregaina izatea okela eta esne ekoizpenari dagokionez.

Itsas jarduerak

Leioa ez da sekula izan marinel-herri nabaria, baina itsasadar eta itsasoaren ondoan egoteak eragina izan zuen elizatean, bereziki Udondo eta Lamiakoko erriberan. Hango biztanle batzuk itsas baliabideak eta itsasaldiak ustiatzeko jardueretan aritzen ziren.

Hori horrela da, ezen elizateak portu txikia izan zuen, Txakurzulo izenekoa, eta horrela deitzen zioten gaur egun galduta dagoen izen bereko baseritik oso hurbil zegoelako, Udondo ibaian gora zegoen senaia batean (1740ko agirietan jasota dago). Badia txikia zen, eta ontziratzeko leku gisa eta salgaiak garraiatzeko erabiltzen zen. Halaber, itsasontziek aterpe segurua zuten artean bideratu barik zegoen itsasadarrean (Abran ere ez zegoen ez kairik ez kontrakairik) jazotzen ziren ekaitz beltz eta enbatetatik babesteko. Ekaitz txikietan, leioaztarren zingo edo kalatu txikiko ontziek hondoa jotzen zuten geroagoko Lamiako ibarrean zeuden hareatzetan.

Salgaien garraioa ibaian barrena eta gabarretan egiten zenez -Abratik, Nerbioiko kaietatik zehar, Bilboraino- auziak sortu ziren Bilboko hiriaren eta itsasadarraren aldeko hainbat herriren artean, salgaien zamaketa eta hustuketa zela eta, besteak beste, burdina, ardoa, elikagaiak, eta pentsua egiteko lastodunak zirela eta. Antza denez, zamaketa-lanak hainbat lekutan egiten ziren, hala nola, Leioako Udondo eta Uduan, eta horrek kalte egiten zien Bilbo eta Portugalete hirietako interesei.

Koroak "portuen ondoko errepublikatzat" zeukan Leioa, eta Errege Armadak eskaturiko marinel errekrutatze asko egin ziren bertan, Aro Modernoan, armadak etengabeko liskarrak izaten baitzituen beste potentzia batzuekin, hala nola, Frantzia edo Ingalaterrarekin, Europako nagusitasuna kendu nahi zioten eta. Esate baterako, Mariana de Austriaren erreginaldian, Frantziako Luis XIV.ak Espainiarekiko bake-ituna hautsi zuen, eta Bizkaiko jaurerriak adi egoteko agindua jaso zuen, zer gerta ere. Leioak korrejidorearen agindua jaso zuen, herriko biztanle guztiek armak prest eduki eta portuak babesteko hala esaten bazieten, frantziar itsasontzi batzuk gure kostaldetik gertu zeuden eta.

Errege Armadan errolatzen ziren marinelez gain, elizateak merkataritza-itsasontzietako kapitainak ere eskaini zituen, kasurako, Giako Ama Birjina izena zuen ontzian itsasoak zeharkatu zituen Manuel de Sarria. Itsasontzi horien jabe zen merkataria bat edo merkataria batzuk, horrela inbertitzen baitzituzten salerosketetan irabazitako mozkinak.

Itsasoan ibiltzeak arrisku handiak zekartzen: istripuak, gaixotasunak, abordatzeak eta presondegia. Esate baterako, 1596an, Drake pirata ingelesak eraso egin zuen Bizkaiko kostaldean. Jesús Basáñezek iradoki du bere liburuan litekeena dela Ingalaterrako ontzien belak Leioatik bertatik ikusi izana.

Garai hartan, itsasontziak neurri batean merkataritzakoak eta beste neurri batean gerra-ontziak ziren, eta hainbat maila ziren ontziko kideen artean: kapitaina, itsasmutilak, morroiak, istinkariak, artilleroak, pilotuak, eta abar. Garai hartako kabotaje-nabigazioari dagokionez, lemako pilotuaren titulua (Bilbora

sartu eta Bilbotik ateratzen ziren itsasontziak gidatu eta Portugaleteko hondarpeak zekarren arriskua saihesteaz arduratzen ziren) eskuratu zutenen artean, Algortak 1652an Abrarako hautatu zituen horien artean, Leioako batzuk bazeuden, besteak beste, Juan Sesumagakoa, Guarnizoko Errege Ontzian istinkari, Pedro Gobelakoa, Martin Basartekoa, Pedro Basartekoa, Asensio Gobelakoa, Juan Basartekoa eta Diego Martiartukoa. Azterketa erraza izan zen: 3 galdera egin zizkieten Portugaleteko hondarpe arriskutsura sartu eta ateratzeko moduz.

Gehienetan, itsasoari eta itsasadarrari loturiko zereginetan jardutea ez zen ogibide bakarra. Leioako asko lurra lantzearekin batera aritzen ziren, eta itsasontzi handiak Abrara sartzen zirenean, Algorta, Santurtzi eta Portugaletekoek egiten zuten bezala, atoian eroaten zituzten zirgara, idien laguntzaz, Zorrotza, Olabeaga edo Bilboraino.

Argi eta garbi dago Leioako biztanle batzuk itsas jardueretan ibili zirena, baina, bazen horiek guztiak batzen zituen elkarerik? Badirudi ez zela kofradiarik Leioan, eta, ogibideen errolda XIX. mendera arte egin ez zenez, baliteke leioaztar marinela Getxo edo Plentziako kofradietan erroldaturik egon izana. Leioak iraganean izan zuen itsasorako joera frogatzeko beste datu bat daukagu, probintziako diputatuak hautatzeko lehen hauteskundeak zirela, 1880ko irailean. Hauteskunde haietan, Leioa barruti bitan bereizi zen: "Marinerria" edo ibaiertzeko herria (Artatza, Ondiz, Udondo, Aketxe eta Lamiakoko auzuneak biltzen zituen) eta "Baserria" edo mendialdeko herria.

Industriaurreko jarduerak

Industriaurreko jarduerak egiten eta oraindik ere zutik dirauten, edo agirietan aipatzen diren eraikuntzei erreparatzen badiegu, irudituko zaigu bigarren sektoreko jarduna txiki-txikia zela industrializazioaren aurretik, baina beharbada errealitatea itxuraldatuko genuke horrela.

Esan gabe doa, garai hartako ekonomia batik bat tokian tokiko izanik, eta familia guztiak beren burua oinarrizko lehengaiak hornitzen ahalegintzen zirenez, familiako kide guztiek, eta batez ere emakumeek, gauzatu behar zituzten zereginak, denbora joan ahala, industri ekoizpenaren eskemaren arabera antolatu zirela. Horren adibide garbiena ehun sektorea dugu: sektore hori lehendik ez zenez, familia-mailako ekoizpena izugarri zabaldu zen, eta ekonomiaren egoerak horretarako modua ematen zuen guztietan, hasiera batean, Gaztelan egindako ehunak, eta XVIII. mendetik aurrera, atzerrian egindakoak inportatzen hasi ziren. Beste alde batetik, XVI. mendean, merkataritza-jarduerak goraldi bizia izan zuen, eta horrek ikazkintza eta burdingintza gararazi zituen. Denboraren poderioz, burdingintzak izan zuen garrantzi handiena Leioako ekonomian eta itsasadarraren industrian. XVII. mendean burdinola bat zegoen Leioan, Altzagakoa, Gobela ibaian. Agirietan, "botatzailea-egilea" izenarekin jaso zen burdinola hori, aldi batean, 60 kg burdin galdagarri baino gutxiago ateratzen baitzituen. Hain zen txikia ekoizpena, ezen mende horretako krisialdiak galarazi baitzuen. Harrez geroztik ez zen burdinolarik izan Leioan¹³, baina egur-ikatzek hornitzen zituen Leioatik hurbileko beste

burdinola batzuk, hala nola Gatikako Butroa burdinola eta Sondikako Urkiaga zeritzona. XVIII. mendearen bigarren hamabostaldian, ekonomiaren bizkorraldiaren eraginez, bertako ekoizpena nahikoa zen nekazaritza lanabes, sukaldeko tresna eta iltzeen eskariari erantzuteko, baita kanpoko merkatuan saltzeko.

Iraganean, 36 errota egon ziren Gobela ibaiaren arroan, bertako elite feudalaren jabetzakoak. Horrek esan nahi du erroten jarduerak berebiziko garrantzia izan zuela alde horretan, eta, beraz, Leioan. Hain zuzen ere, bazeuden garai hartan Altxagako eta Elexaldeko erreka-errotak eta Udondoko itsasaldi-errota. Horiek guztiak sakonago aztertuko ditugu aurrerago.

Baziren beste lanbide nabarmen batzuk, hala nola, zurgina eta errementaria. Horiek, batez ere, etxebizitzak eta itsasontziak egiten aritzen ziren, edo gurdiak egiten ere bai, XVIII. mende amaierako leioaztar zurgin Juan Antonio de Cortinaren moduan. Gurdiak honelako edo halako mailaren erakusgarri ziren, salgai baitzeuden, eta ezkonsari nahiz herentzietan ageri baitziren.

Hargintza eta eraikuntza nahiko garaturik zeuden, Leioan eta Axpen (Erandio) zeuden harrobiei esker. Harrobiak herriko ondasunak ziren eta norbanakoei lagatzen zitzaizkien errentamenduan, erauzteko mugarik gabe. Ustiatzaileek hareharria ateratzen zuten eraikuntzan erabiltzeko, urragarri gisa, eta geroago, beira egiteko. Eraikuntza garrantzizkoak eraikitzeo, kalitateko harriak behar ziren. Hori dela eta, XVII. mendean, Arrigunaga eta Arrikapelako harriak erabili ziren Leioako elizaren lanak egiteko. Eraikuntzari loturiko beste ekonomi jarduera bat egiten zen Leioan: adreiluak eta teilak fabrikatzea. Jakin dugu, XVII. mendearen erdialdean, Mendietako Antonio eta Domingo anaiek horretan zihardutela Leioan¹⁴.

Eskulangintzako lanbide horiek guztiak herentziaz ikasten ziren, gurasoengandik seme-alabengana, edota ikaskuntza zereginen bitartez. Azkenen arabera, maisuak ikastuna edo apendiz hartzen zuen etxean, familiako beste kide bat balitz bezala, lanbidea ikasi arte, eta orduan, ofizial bilakatzen zen maisuaren lantegian, edo nork bere lantegia irekitzen zuen.

Industriaurreko jarduera horiek eta merkataritzak berak nekazaritzaren mentsa berdintzen zuten, eta moneta ekonomia bultzatzen zuten, autokontsumoaren kaltetan. Ekonomiak bilakaera handia izan zuen, eta horren ondorioz azoka batzuk antolatu ziren, besteak beste, Getxokoa, 1780an.

KOMUNIKABIDEAK

Lehengo leioaztarrek auzoko bideak, ontzi txikiak eta ibaiak nahiz errekek igarotzeko zubiak erabiltzen zituzten komunikazio bidez.

Estratek baserriak lotzen zituzten, eta baserriak elizarekin eta baselizekin, baina apurka-apurka auzo-bide bilakatu ziren eta horien egoera, denbora igaro ahala, kezkatzekoa zen. XVIII. mendearen amaieran, Leioako auzoak eta elizatea ondoko udalerriekin lotzen zituen bideen azpiegitura osatua zegoen.

Antzina-antzinatik Portugaletera igarotzeko itsasontzia ibili zen, Berango, Getxo, Leioa, Sopela eta Urdulizen pentzudan. Antza denez, bazter hauetako saltzaileek alokaturik zeukaten ontzia, familiako lakari bat gari urtean ordaintzearen trukean, jarrilleroen hirian astero egiten zen merkatu jendetsura joateko. Hala ere, 1754ko urtarrilaren 28an, Portugaletek txalupa bat pleitatu zuen zerbitzu hori emateko, Portugalete fundatzeko Haroko Maria Diaz andreak emandako hiri-gutunean oinarriturik, itsasadarraren gaineko eskumena ei baitzeukaten portugaletearrek Lutxanaraino; biharamunean itsasadarra igarotzen hasi zen txalupa, baina ukituriko elizateek prokuradorea hautatu zuten korrejidorearen aurrean auzia aurkez zezan. Korrejidoreak ebatzi zuen salaketa ez zela bidezkoa eta baimena eman zien Portugaletekoei txalupari eusteko, baina ezarri zuen hiriak aukera eman ziela eskuinaldera itzultzen zirenei nahi zuten txalupa hautatzeko.

Garraibide hori guztiz funtsezkoa zen, itsasadarraren bi aldeak lotzen zituelako. Beste alde batetik, itsasadarra komunikazioen ardatz nagusia zenez, haren sakonera txikia handitzen saiatu ziren alde batuetan, eta horretarako kaiak eraiki zituzten. Eraikitzeke lanak XVI. mendean hasi ziren eta Leioak horren lekuko izan eta obretan parte hartu zuen. Geroago, XVII. mendearen hasieran, Batzar Nagusietan erabaki zen Portugaleteko barran sartzen ziren ontziek zekartzaten harria eta lasta bota behar zutelara Getxo eta Leioa aldera kaiei eutsi ahal izateko. XVIII. mendean, itsas zirkulazioak goraldia izan zuen garaian, Kontsulatuak itsasadarraren beheko aldea eta Portugaleteko barra konpondu zituen, sarritan gertatzen ziren naufragioak ahal zen neurrian murrizteko¹⁵. Horrela, 1731n, errege armada eta plazetako ingeniarien buru Pedro Moreaut-ek egindako hobekuntza planari jarraiki, lasta bota behar zen Leioako erriberan eta inguruetan, hain zuzen ere Gaztelu aldean -gaur egungo Erromon- Palillon eta Leioako kaian; horrela, kaiak eraikitzeke zimentuak ezarri ziren, eta salgaien gaineko zergari esker ordaindu ziren, horren bidez 300.000 peso eskuratu baitziren. Obrak 1734az geroztik egin ziren, Pedro Besibey frantses ingeniariak zuzenduta.

1760an kaia eta zubi berria eraikitzen hasi ziren Erandioko elizateko Asua izeneko lekuaren ubidean. Erandioko elizateak nahi zuen zubia altxagarria izatea, baina Kontsulatuak harriz egin zedila erabaki zuen. Kaia erriberan behera luzatu behar zen, Getxokoarekin lotzeraino. Gainera, Kontsulatuak bizpahiru mihi edo ontziratzeko toki egin behar zituen eta Udondo ibaiaren gaineko zubia eraiki (Leioako jurisdikziopean, gaur egun Dow Chemical enpresa dagoen lekuan). Halaber, bide bat egin behar zuen erriberan oinez eta zaldi gainean igarotzeko, eta onibarretako ura husteko beharrezko "txinboak" edo ponpak ezarri. Lan horietan, Erandiok Leioari lagundu zion eta Axpeko harrobiak laga zizkion behar zituen harri guztiak handik erauzteko, eta 3.000 behargin edo peoi, hau da, 3.000 lansai. Lankidetzan

hitzarmen horren behin betiko eskritura komunitate biek sinatu zuten 1760ko uztailaren 3an. Maruriko Jose Antonio jaunak eta Pagoetako obra maisuak onartu zuten planoak. Asua ibaiaren gaineko zubia 1771n hasi ziren eraikitzen, eta kaia luzatu zen Axpe ingururaino.

1788an, Sestaorako bidea eta Olabeagatik Zorrotzarainoko kaiak eraikitzeke lanez gain, Kontsulatuak zubia eraiki zuen Axpetik Getxoko hareatzetara igarotzeko bidean, Udondoko errotaren ondoan. Errota hori Barraikuako mairorazkoarena zen. Zubi hari "zortzi begiko zubia" izena eman zioten, eta zubiko arkuen azpian ostra haztegia zegoen. Hiltegiako zubia izenekoa geroago egin zen, Nerbioi ibaia ubidetu zenean, eta Udondoko zubia edo Sindikatukoa lamiakoko padurak lehortzean jaso zuten, Gobela ibaiaren bokalea gaurkoaren modura jarri zutelarik.

Baziren beste komunikazio-bide batzuk, baina gaur egun ahaztu samarrak ditugu telefonoak eta posta elektronikoak ordeztu dituelako. Komunikazio bide horiek telegrafoa (1850ean, Portugaletek xede horretarako alokatu zuen eraikin bat, eta 1853an bazuen "Portu honetako telegrafo linea txukun eduki eta zaintzeko araubide eta ordenantza" eta betiko posta¹⁶. Hasiera batean, ez zen pertsona bat beren beregi arduratzen gutunak ekarri eta eroatez. XIX. mendearen erdialdean, Elorriagako Maria Teresak, Algortako emakume batek, egiten zituen "posta eroateko lanak". Bilboko postetxetik ekartzen zituen administrazio orokorreko aldizkariak udaletxera, eta berari zegokion ordainsaria eman ziezaioten eskatzen zuen, honako hau argudiatzen zuela: "nire premiak asetzeko behar-beharrezkoa dut, nire karrerari eusteko".

Zerbitzu horren erabilera erakundeez bestera ere zabaldu zen, baina, hala eta guztiz ere, 1861ean, Lurraldeko Gobernuak ez zuen aintzat hartu Udalak postari lanpostua betetzeko zeukan asmoa. Ordura arte, Leioako emakume alargun batek jardun ohi zuen lanpostu horretan. Handik aurrera, postariak ordainsariak erreklamatu zituzten behin eta berriz -askotan, postariak ezer kobratu barik lan egiten baitzuten- eta lanpostu hori sortzea eskatzen zuten. Azkenik, 1874an, zerbitzua arautu ei zen Larrabetzuko posta-administratzaileak, Manuel de Undabarrenak zenbait udalari, baita Leioakoari ere, eguneroko zerbitzua behar bezala egiteko oinezko bat hautatu zezatela eskatu zienean. Oinezko hark erreal bat kobratu behar zuen egindako legoa bakoitzeko. Gainera, posta-hartzaileak "hartu izanaren agiriaren" antzeko papera sinatu behar zuen, eta, era berean, gune zehatza ezarri behar zuten postariak gutunak jasotzeko.

GIZARTEA

Gizartearen egitura

Kaparetasun unibertsalaren abiaburua ezartzen zuen berdintasun juridikoak ez zekarren gizarte-berdintasunik. Aitzitik, ekonomi irizpideetan funtsaturiko gizarte hierarkizazioa nabaria zen, eta egitura horrek ahalbidetu zuen gizartearen dinamismoa.

XVI. mendetik XIX. mendearen ia amaierara arte, honako talde hauek zeuden Leioan:

1. Nagusi laikoak:

Eliteko kideak ziren, Erdi Aroko leinuetako familien ondorengoak. XVII-XVIII. mendeetan, elite hori absentista bihurtu zen, hiribildu eta Gortera joan baitziren bizitzera, eta elizateetan leinuetako bigarren mailako eskribauek, nekazari aberatsek eta elizgizonek osaturiko beste elite batzuk eratu eta horien esku geratu ziren herri karguak.

Nagusi guztien artean, XVIII. mendearen erdialdean, José Ordóñez de Barraicua, Sondika, Abando, Getxo eta Leioako nagusia, nabarmendu zen. Antonio de Evia y Quiñones izan zen beraren administratzailea. María Francisca de Castaños y Ocariz ezkondu zen¹⁷ eta María izeneko alaba izan zuten. Ramona de Allendesalazar andrearekin ezkondu zen bigarrenez, eta Mariano izeneko semea izan zuten. Mariano hura 4 elizateen nagusi dibiseroa izan zen eta Erandioko Asua oinetxe-dorre infantzoia eskuratu zuen.

2. Nekazari jabeak eta maizterrak:

Talde honen ekonomi egoera oso aldakorra zen eta, hala, ezin dugu orokortu, baina esan dezakegu talde horren estatusa lurrarekiko loturan oinarritzen zela batik bat, hau da, lantzen zuteneko lurra haiena izan edo, bestela, beste jabe bati akuratzen zioten.

Erregimen Zaharrean, lurraren jabetzak ezartzen zuen estatusa landa-eremuan. Elite absentista -herri karguak bidegabeki euren esku zituztenak; leinu edo familia handiak ere eratzen zituzten- eta kleroa ziren lurrarren erosle behinenak. Haien lurra alokatzeak mozkin handiak ematen zizkien.

XVIII. mendearen amaieran, jabeen eta maizterren arteko banaketa sekula baino nabarmenagoa izan zen. 1760-1770ko krisialdian, zorrez itota zeuden nekazariak errolda-eskriurak eskuetsi zituzten, eta ondasunak hipotekatu. Apurka-apurka ondasun horiek bahitu eta jabetza maizter eta mailegu-emaielen esku geratu zen (fiel errejidore, Gernikako batzarkide, elizjende, Getxoko biztanle aberats eta eskribauen esku), eta nekazari asko alogereko edo errentari hutsa bilakatu zen. Horrela gertatu zitzaizen Sagasti, Larrakoetxe, Arana, Etxebarri Goikoa, Artaza de Abajo, Bidaurrazaga, Lejonagoitia eta Zuazo zaguera etxeei¹⁸, eta beste batzuen esku geratu ziren erroldak ez ordaintzeagatik.

1799an, jabeek 18.011,5 errolda-dukak zor zuten Leioan 47 hartzekoduni. Hartzekodun horietatik, %38,29 erlijio-erakundeak ziren, -horien artean, Portugaleteko Santa Klara komentua eta Bilboko Gizakundea- eta errolden %55,8 zegoen haien mendean.

Maila ertaineko nekazariak apurka txirotu eta ondasunak gutxi batzuen esku metatu zirela frogatzeko, familien ondasunak aztertu besterik ez dugu egin behar, eta, horretarako, testamentuak eta hil-ondoko inbentarioak erabili ditugu. Testamentu horietan jasotakoa oinarri harturik, jakin daiteke, XVIII.

mendearen amaieran, zorrez itotako jabe askok eta askok testamentua egin zutela, eta XIX. mendean txirotu gabeko eliteak egiten zuela gauza bera.

Ondasunen estatistikak ere datu-iturri onak dira, eta oso datu jakingarriak atera daitezke haietatik. 1810eko estatistikaren arabera, 95 basetxe eta 2 lur-eremu zeuden Leioan; ondasun horietatik, 68 zorpeturik zeuden eta 6.773 erreal zor zuten urtean, hau da, sortzen zuten aberastasunaren %25 baino gehiago. 1814an, 98 basetxe eta 13 lurzati zeuden, 120 jabe eta 84 kolono. Horrek esan gura du, askotan, basetxea erdiz bana edo hiruz bana gobernatzen zutela. 1823an, 106 jabe zeuden, eta 104 eraikuntza, 2 larre-sari eta 20 lur-zati. Jabe guztietatik, 19ren (haien artean, 4 komentu) mendekoak ziren basetxe guztien laurdena baino gehiago eta, gutxi gorabehera, larre-sarien eta lurzatiaren erdia. Bestela esanda, errenta guztien %30 baino gehiago zuten mendean.

Erregimen Zaharra amaitutakoan, gizartearen egiturak hainbat aldaketa izan zituen, baina horiek eragin txikia izan zuten Leioan. 1795ean, "nekazari eta marinelen hutsek" osatzen zuten Leioako gizartea. Godoy-ren erroldaren arabera, 42 nekazari jabe, 38 maizter, 6 artisau, 29 mirabe, 1 abade benefiziodun, 1 kapilau eta 1 sakristau zeuden Leioan¹⁹. Lurra lantzea zuen bereizgarri landa-eremuko gizarte hark; bestalde, oso artisau gutxi zeuden. Hogeita hamar urte geroago, Leioako 434 biztanle guztiak nekazariak ziren, ondoko hauek izan ezik: zirujaua eta emaztea, senar-emazte errotariak, errementaria, zurgina eta sakristaua.

Ohartu gara lurra berebiziko garrantzia zuela, eta nekazariak hari atxiki-atxikita zeudela. Lurra eta baserriak bat egiten zuten, Familiaren etxeko atala zen, eta horixe irauarazi eta hobetu beharra zegoen. Hori dela eta, landa-eremukoek muzin egiten zieten errekrutatzei, eta oso txartzat hartzen zen nekazariak familia eta lurra lantzea utzi, etria itsasoko abenturari lotzea. Vargas Alonsok adierazi duenez, nekazari eta marinelen arteko aurkakotasuna agerian geratu zen Lamiaren kantua²⁰ izeneko herri elezaharrean. Antonio de Trueba idazle erromantikoa jaso zuen XIX. mendean, Capítulos de un libro [Liburu baten atalburuak] liburuan. Elezaharrak XVII. mendean jazotako istorio baten berri ematen du: nekazarien seme batek etxea eta ondasun guztiak galdu zituen, ontzia erosi eta itsasoko bizimoduari lotzeko, ama alargunak aurka azaldu zitzaion arren. Ama, negar batean, Ondizko ihitokietara joaten zen semea noiz itzuliko zain. Elezahar horrek jasotzen du nekazariak duten iritzia itsasoko bizimoduari buruz. Nork bere asmoz eta gogoz itsasoan jarduteari muzin egiten dio eta gurasoen etxetik alde egiten duena gaitzetsen du. Alabaina, huraxe zen aukera bakarra, askotan, bigarren semeentzat, etxeko ondasunak anaia nagusien esku gertzen baitziren.

3. Baztertuak:

Alargunak eta adineko txirotak, umezurtzak, ume abandonatuak, atzerrikoak, alferrak eta eskaleak baztertuta zeuden garai hartan. Nolanahi ere, gizarteak talde haiegi egiten zien arbuioa garai hartako jazoera izan zen Leioan.

Ezkontide bat hiltzen zelako, familia-unitatea desagiten zenean, bizirik geratzen zenak, batez ere, emakumeak, diru-arazo askori egin behar izaten ziren aurre, eta, askotan pobreziak erao egiten zion etxe horri. Horrela gertatu zitzaion 4 urte alargun eman zituen emakume bati, alaba gaixorik zeukala. Emakume horrek, 1691n, jatorrizko ondasunen -bi etxe eta etxaldeak- gaineko 100 dukateko errolda emateko baimena eskatu zuen. Edo, bestela, Erandioko eta Leioako biztanle biren gainean ituen 50 dukateko errolda saltzeko baimena eman ziezaiotela. Ordura arte, egoera latz hari aurre egiteko, edergali guztiak saldu zituen, eta "bakar-bakarrak geratu zait gorputza estaltzeko behar dudana"²¹.

Sarritan, ondorengorik ez zuten adinekoek edo haien beharrianak ukatzen zizkieten seme-alabek abandonaturikoen ondasunak saldu behar izaten zituzten, pobrezian bizitzeko arriskua saihestearren²². Umezurtzak ere egoera atsekabegarrian bizi ziren, eta haien familakoak edo tutoreak egoera arintzen saiatzen ziren. Adibidetzat har dezagun aita barik geratu eta burutik eginda zegoen amak arretarik egiten ez zieten lau neba-arreben tutoreek egindakoa. 1823an, tutoreek 100 dukateko mailegua eskatu zuten %6an "koltxoiak eta jantziren bat edo beste erosteko"²³.

Ume abandonatuen²⁴ egoera are kezagarriagoa zen, baina Bizkaiko Ume abandonatuen Zuzendaritza Batzaren bitartez konpon zitekeen, beste senar-emazte batzuek ume horiek seme-alabatzat harturik. Erakunde hark guraso izan gura zutenen egoera aztertzen zuen, seme edo alabatzat hartzea arautzen zuen -adopzioa egiten zen umeek 7 urte zituztela-, eta kasu bakoitza arreta handiz artatzen zuten; horrela, aldian behin, umea egoitzara eroatea eskatzen zuten. XIX. mendearen erdialdean, Leioako senar-emazte batzuek seme edo alabatzat hartu zituzten ume abandonatuak.

1852ko udan, José de Ayo eta Agueda de Aketxe emazteak etxe ondoko bidean aurkituriko jaioberri bat eramán zuten hara. Umeak honela zioen papera zekarren soinean: "1852ko ekainaren 9an jaio eta 10ean bataiatu zen. Umeak Melitón izena du". Une hartatik aurrera, Ume abandonatuen batzak alkateari eskatu zion miaketa batzuk egiteko eta umea bataiatzeko. Baldintza hori ezinbestekoa zen erakundearen onartzeko. Halaber, jaioberria ezin zieten eman aurkitutakoei, aita-amatzakoei ezin baitzuten leku berekoak izan.

Landa-gizarte geldi eta bakartu hartan, mesfidantza zieten kanpokoei, eta, gaur egun gertatzen den bezala, tokikoek egin nahi ez zituzten lanetan aritzen ziren. Esate baterako, 1740an, frantses bik izena eman zuten armadan, Leioakoak izango baziren bezala, 1.200 errealekin truke. Dena dela, mota bateko eta besteko atzerritarrek ziren: Frantziako Iraultzak eta Konbentzioaren aurkako gerrak iraun zuten bitartean, agiritan "pasadizoko" edo "disidente" jarrita zutenek -oro har, goi-kleroko kideak²⁵ eta gizarte-mailak handikoak- mesfidantza sorraraziko zuten, nonbait, baina, segurutik, bertako eliteek ez zituzten baztertuko.

Alferrak eta eskaleak, ordea, baztertuak zeuden eta legeak jazartzen zituen. Agintariek zaintze eta kontrol neurri zorrotza ezarri zizkieten XIX. mendearen erdialdean. Esate baterako, 1855ean, Leioako auzotar bati alferkeria leporatu zioten eta basetxe batean gertaturiko suteak hark eragin zuela salatu zuten²⁶. Urtebetegarrenean, Okendoko eskale-petrikilo baten aurkako salaketa jarri zuen Leioako zirujauak, irainak esan zizkiola-eta²⁷. Seguruenik, eskaleen aurkako gaitzespena islatzen duen salaketa horrek ostenduko du herriko profesional bati lehiakortasun desleiala egiten zion pertsona batenganako mesfidantza eta arbuioa. Beste alde batetik, herriko agintariek ematen (edo ukatzen) zieten baimena txiroei kaleetan barrena eskean ibiltzeko. "Bizi duen egoera latza arintzeko" Ongintzako Batzak baimena eman zion Vitoriana Bilbaori Leioan eskean ibiltzeko.

Azken batean, eskaletasun hura errotik ezereztatu nahi zuten, gaixotasuna bailitzan, eta, horretarako, tokiko eta tokiz gaindiko agintariek eskura zituzten bitarteko guzti-guztiak erabili zituzten. Horrela, "lurralde honetako biztanleei, bereziki eskuzabal eta ongile direnez" eginiko gehiegikeriak bazter utzi, eta behin betiko konponduko zuten moralari eta ordena publikoari eustea oztopatzen zuten arazoa. Batzuen arabera, balizko irtenbidea eskaleentzako babesetxeak eraikitzea zen, baina babesetxeak baino, espetxeak ziruditen.

Herri-lurrak eta haien gizarte-eginkizuna

Lurra familiaren mantenua bermatzeko funtsezkoa zenez, eta, askotan, lurraren jabetza hartzekodunen esku geratzen zenez, herri-lurrek berebiziko garrantzia izan zuten gizartean familiaren ekonomia osatzeko. Herri-ondasunen garrantziaren ondorioz, auzibide asko izan ziren; bereziki, XVII. mendean, egurra moztea zela eta. Denbora igaro ahala, elizateak norbanakoei alokatzen zizkien herri-ondasunak, mozkin handiagoak eskuratzeko, eta horrek onura ekartzen zien eliteei, horiek baitziren enkantean parte hartzeko benetako aukera zuten bakarrak. Udala diru barik geratu, eta dirua premiaz behar zuenean -batez ere, zerga-presio larriko garaietan, gerra-gatazken ostean-, lur horiek ez ziren alokatzen, ezpada, saltzen, salmentaren bidez lortzen baitzituen udalak alokairuaren bidez baino mozkin handiagoak, eta berehala. Apurka-apurka, herriak herri-lursailik gabe geratu ziren. Esate baterako, XIX. mendearen hasieran, Leioako fededunek Aldundiari eskatu zioten Udondoko benta egon zeneko lekua, bertako ortua eta ibarra, eta Lamiakoko herri-lurrak -azken horiek bahituta zeuden, Bilboko Clemente de Iturriagak hala eskaturik, 4.000 erreal zor batzizkioten²⁹- besterenganatze eskumena.

Herri-ondasunak ustiatzeko gertakizunak eta liskarrak lehen Karlistaldiaren ondoren areagotu ziren, 1840 aldean, udalek gerra ordaintzeko gastu handiak izan zituztenez gero, herri-ondasunak barra-barra saldu baitzituzten. Horrela, lursail horiek ustiatzeko eskubiderik gabe geratu zirenek aurre egin nahi izan zieten mendi-sail asko bereganatu zituztenei. Izan ere, herri-ondasunen salerosketa asko eta askotan, iruzur egin zuten udaleko eliteek eta auzotar aberatsenek, eta auzibide ugari egin ziren hori dela eta. Kasurako, Bidaurrazaga Goikoa aldean 16 gizalurreko mendi-saila zeukan alargun bat ukitu zuen gertaera. Andre horrek ezin izan zuen egurra moztu aipaturiko mendi horretan, bertako auzotar agertu

eta "gaizki-esaka hasi zen, eta lau haizetara oihukatu zuen nire ezkontidea gezurteroa eta azpizapoa izan zela, eta bizi izanez gero, mundu osoa irentsiko zuela bidegabeki". Ahoz iraindu zuen auzotarraren aurkako salaketa jarri zuen andreak, Korrejidoretzaren aurrean, eta, orduan, auzotar horrek ez zuen arriskurik hartu nahi, irainengatiko auzibidean jarri eta isuna ordaindu beharko zuelako eta, hala, orduko egoera ekonomiko kaskarra are kaskarragoa bilakatuko zitzaion. Horregatik, baliteke salaketa horiek guztiak egin zituen auzotarrak atzera egin izana, eta geroago honelako adierazpen hauek egin zituen: "haserraldi baten eraginez gertatu zen dena, eta damu zaio irain horiek guztiak esan izana; halaber, barkamena eskatu dio María Vicentari, eta mendi-sail horretan, hark nahi duena egiteko eskubidea nahiz jabetza erabilgarri dituela, eta ez berak, ez haren jaraunsleek eragotziko diotela eskubide hori". Beste aldeak, berriz, auzibidea bertan behera utzi zuen³⁰.

Urte horien bueltan, gizarte mailako istiluak ere egon ziren, herri-ondasunak bidegabe saltzeak eragin zuen krisialdiaren ondorio. Gainera, elizateak zor asko ordaindu behar zituenez, herritarren gaineko zerga-presiba izugarria zen. Horregatik, beharbada, 1840 urteko San Joan egunean, auzotarren talde batek aurka egin zien agintariei erromeria ospatzen zen bitartean, "matxinatu eta agintarien esana ez zuten bete, eta ozen oihukatzen zuten haiek gozatu behar zituztela dantzak, eta beste batzuei debekatzen zirela horiez gozatzea (...) mehatxariek eginga ondo gogoan hartuko zutela eta ez zituztela ahaztuko zerabilten gora-goraka". Liskar hartako biri egotzi zieten errua, eta 200na dukat eskatu zieten presondegiak libratu eta ondasunen bahiketa saihesteko³¹.

Aurrerago ere, udalek herri-ondasunak saltzen jarraitu zuten zorrak kitatzeko. 1853-1857 aldian, hartzekodunen hitzarmenaren espedienteak ezarri zuenaren arabera, 65 lur-erlo saldu behar izan ziren, baina azkenean 121 tasatu ziren (232.897 lur-estatu, 121.007,41 erreal balio zutenak). Liberalismoa zabaltzeaz batera, espekulazioa ere hedatu zen, eta, horren ondorioz, norbanakoen eta udalen zorpetzea. Ohiko bihurtu zen garai hartan ondasunak galdu eta herri ondasunak saltzea. Batzuetan, udalerrriak saiatu ziren auzotarren egoera arintzen krisialdietan, eta udal-bihitegi-tako administratzaileek norbanakoei ezartzen zieten gariaren prezioaren eta kontsumitzaileek ordaintzen zutenaren arteko aldea berdintzen zuten.

Elizak, erlijio-jaietan haren itzalpean, eta eliz atarian mundu honetako gaiez mintzatzeko biltzen ziren komunitateak uztartzen zituen erakundea zen aldetik, funtsezko eginkizuna izan zuen Erregimen Zaharreko gizartean, aldi hartan izan zuen garrantzi ekonomiko eta politikoaz gain, fededunen kontzientzietan eragin zuen kontrolagatik.

Leioako San Joan parrokiako eliza 1526an sortu zenez -hala ere, 1526 baino lehen, fededun leioaztarrek biltzeko lekurik bazuten- XVI. mendetik aurrera aztertuko ditugu erakunde horren ezaugarriak. Horretarako parrokiako liburuak ikertu dituzten autoreengana jo dugu. Autore horiek guztiek oztopo bat aurkitu dute lehenbizi: idoro duten lehen parrokiako liburua 1619an hasten da, baina ezin da argiro

irakurri 1621era arte, eta azken orrialdeak falta dira 1663z geroztik; bigarren liburua ez da 1773ra arte hasten, eta, beraz, hutsune horiek guztiak osatu behar izan dituzte elizbarrutiari buruzko beste agiri batzuen bitartez, edo Bizkaiko Jaurerriko eta ondoko elizateetako agirien bitartez.

Parrokia sortu zenetik eta denbora laburrera, Karlos I.a erregeak aurre egin behar izan zien Luterok eta Kalbinok hasitako Erreformatik sorrarazi zituzten gerrei, eta Kontrarreforma antolatu behar izan zuen hiru zatubetan oinarriturik: Inkisizioa, Jesusen lagundia eta Trentoko Kontzilioa. Trentoko Kontzilioaren helburu nagusia fededunen espiritua leheneratzea izen zen, tokiko kleroaren kultur heziketa hobetuz. Parrokietako espiritu-egoera zelakoa zen jakiteko, bisitaldi pastoralen kopurua izugarri handitu zen, kontrolatzeko neurri gisa erabiltzen zituzten-eta, eta Enkarterria izan ezik, Bizkaiko lurraldea Kalagorriko gotzain-barrutuaren mendekoa zenez, Kalagorriko gotzainak edo bere ordezkariak egiten zituzten "ikuskapen" horiek. Bisitaldiek erlijio-ohituren berri ematen dizkigute, bai eta komunitateak zituen bizio edo ohitura txarren berri (dantzak, jokoak, tabakoa erretzea, janzkera, eta abar) eta horiek guztiak artezten saiatzen ziren umeei katixima edo kristau-ikasbidea irakasten eta helduei sermoiak ematen.

Ezagun dugun lehen bisitaldi pastoralera 1541ean egin zen, baina ez zuen arrastorik utzi Leioan. 1579ko otsailean, Bizkaiko gobernuak bidezidor guztietan iragarri zuen "tabernak elizetatik hurbil zeudenez, eragozpen batzuk-batzuk sortzen zirela; eragozpen nagusia zen pertsona batzuen ezin entzutea jainkoaren elizkizunak jaiegunetan. Hori dela eta, agindu zuten tabernarik ez egotea elizatik bi baleztatirora baino hurbilago, eta tabernariak ogirik, ardorik eta ezer ez ematea auzotarrei, meza amaitzen ez den artean" 32. Lehen oharrean garez, aldian aldiko agintariek erlijio-moralari loturiko xedapenak ematen zituzten, eta xedapen horiek, askotan, zibilen eta erlijiosoen botereen artean, hala nola, 1594ko martxoaren 10ean, non lurralde irekiko erregimentuan, San Juan de Munitizek, sindiko ganboatarrak, Uribeko merindadeko (Leioa bertakoa zen) bikarioa tartean sartu izana salatu zuen, Domingo de Orobio izendatu baitzuen aguazil, eta izendapen hori agintari zibil eskumenekoa zen. Batzuen eta besteen tartean sartzeak zirela eta, agintari zibilen eta eliztarren arteko liskarrak oso ohikoak ziren erlijioak horrenbeste eragindako gizarte hartan. Esate baterako, 1595eko urtarrilaren 24an, Bizkaiko Erregimentu Nagusiaren bilkuran, Leioako sindiko Pedro de Ansoleagak honako hau salatu zuen: "duela urte batzuetatik hona, Kalagorriko gotzain-barrutiko eliz epaileek jaurerri honetan sortu eta bertan bizi diren auzotarrei irain, eragozpen eta bidegabekeria asko egin ohi dizkiete" 33. Botere horiek banatzeko asmoa agerian azaldu zen 1597ko azaroan, erregimentu nagusiak honakoa agindu baitzuen: "hemendik aurrera, ezein elizateetan, ez dira egingo kontzejuetako udalak jaiegunetan, edo meza nagusiaren aurretik, edo domeka eta gorde beharreko jaietako prozesioaren orduan, gobernuaren gaineko gaiak eztabaidatu eta jorrazteko, ez eta aipatu kontzejuei dagozkien beste zeinahi gai, ezpada, meza nagusi egin ondoren, eta kanpaiak jo beharko dira jaiegunetatik landa, gizalegeak agintzen duenaren arabera; halaber, ez da zeinahi kalitate, duintasun, garrantzi edo mailako pertsonarik onartuko, bertan dauden auzotarrak eta hizpidea nahiz hautespidea duten elizateetako auzotar eta biztanle ez badira; horixe bete

eta betearazi beharko dute elizateetako fededunek, bestela, 1.000 marabediko isuna ezarriko zaie kontrakorik egingo balute, eta jaurerriko bideak konpontzeko erabiliko dira, lurralde honetako sindikoak eta aurrerantzean direnek arestian esandako urratzearen berri izan eta zigorra betearaz dadila eskatzen dutenean"³⁴.

Beste alde batetik, gotzainekiko liskarrak maiz gertatu ziren XVI eta XVII. mendeetan, haien agintea ez baitzen onartzen jaurerrian. 1603an Pedro Manso jaun txit prestuak, Kalagorriko prelatuak, Bizkaian egin zuen bisitaldia (Leioa ere bisitatu zuelakoan gaude), eta bertakoak horren aurka azaldu ziren nabarmen.

Erljioko egutegiaren jaiegunez gainera, auzotarrak beste arrazoi batzuegatik ere biltzen ziren elizetan, besteak beste, gerra garaipenak ospatzeko, infanteen jaiotza ospatzeko, edo errege-erreginen eta haien familiakoen hileta-elizkizunetara joateko. Hala ere, ez dugu horien berririk jakin Leioari dagokionez, baina bagaude ondoko beste elizate batzuetan egiten zen antzera egingo zutela honetan ere, eta, haietan bezala, udalbatzako kideak eta batzarretako ahaldunak bertan zirela, gertakizun horiek guztiak ospatuko zituzten nork zuen jantzirik onena soinean jantzita.

Baina liskarrak alde batera utzirik, Elizak ahalegin bizenak egin zituen fededunen moralala artezteko, eta erljiorearen manuak irakatsi zizkieten txiki-txikitatik. 1605ean, Bizkaiko erretoreek gotzainaren gutuna jaso zuten. Gutun horretan, gotzainak iradoki zien ardura handiagoa izan behar zutela umeei katixima irakastean, eta hildakoen elizkizunak egin behar zituztela domeka eta jaiegunetan ere; bestela, hori egin ezean, "kalte handiak eragin, lanari huts egin eta zeregin asko egin barik geratzen ziren". Fedeak garrantzi handia zuen, eta lanak ere bai.

Atal honen hasieran esan bezala, elizak eginkizun esanguratsua izan zuen gizartea egituratze aldera, eta haren baitan elkarte asko eratu ziren, esate baterako, kultuari eutsi nahian, elkarki laguntzeko benetako antolakunde bihurtu ziren haiek. 1616an, Arrosarioko Kofradia eratu zen Leioan, baina ez da horren berririk jaso agirietan 1655era arte. Urte horretan, kofradiako kideen zerrenda egin ei zen³⁵. Elkarreak zituen 152 kideetatik, 87 emakumeak ziren. Leioan, arruntak ziren honako deitura hauek: Artaza, Axcarça (Askartza), Lejona, Vidaurrizaga, Udondo, Aqueche, Peruri, Arechabaleta, Sesumaga, Landabaso, Basañez, Ubeda, Vidacurcio, Aresti, Mendibil eta Alzaga, besteak beste. 1675-1714 aldiko urteak jasota zituen liburua galdu zen, eta 1715ean berriro idatzi ziren hitzarkinak. Horietan ezarri zen, besteak beste, kofradiako kide bakoitzak 2 errealeko kandela zuria eman behar zuela eta kopuru hori eman behar zuela urtean erremusina gisa. Kofradiako kideek prozesioa egiten zuten Ama Birjinaren jaiegunetan eta hileko lehen domekan. Kofradiaren diru-sarrerara nagusiak gauzazkoak ziren, gari eta artotan emanda, eta, orokorrean, gastuak sortzen ziren apaingarriak eskuratu edo horiek berriztatzeko. Kasurako, 1739an, gastuen kontu-saila erretaulan erabili zen. Kofradiazainak laikoak ziren, eta, batzuetan, haien gaietan inbertitzen zituzten denen mozkinak.

Trentoko Kontzilioaren ostean, elizaren estamentuaren gehiegikeriak moteltzen saiatu ziren arren, gehiegikeriek lehengoan iraun zuten. 1621an, Kalagorriko gotzain Pedro González del Castillo jaunak bisitaldia egin zuen, eta debekatu zuen abade ordenatu berriek, lehenengo meza eman ostean, izen bereko bigarrena egin gura izatea, eskaintza, otoruntza, dantzaldi eta guzti.

Elizaren agintari nagusiek gogor hartu zituzten komunitateko kideen bizioak. 1664an, Juan Piñero Osorio jaunak, Urbano VIII.a Aita Santuaren Brebea jakinarazi zuen. Brebe horretan debekatzen zen tabakoa sudur-hauts gisa hartzea leku santuetan, elizkizunak izan baino ordubete lehenago eta ordubete geroago. Azkenean, erretorearen ohar batean honako hau ageri da: "manuak euskaraz iragarri nebazan"; horrek esan gura du eliztar gehienek euskaraz besterik ez zekitela³⁶.

Elizak kontrol izugarria zeukan kontzientzietan, batez ere, sekulako beldurra sorrarazten zuen gai baten gainean, heriotzaren gainean, hain zuzen ere. 1655ean, Joan Joániz Echalar jaunak egindako bisitaldian, honako hau ezarri zuen:

"Gainera, garbitokiko arima bedeinkatuek pairatzen dituzten zigor gogorrei erreparaturik, agindu zuen gauero-gauero, agurmarien ostean, hamar joaldi egin daitezela bertako elizaren kanpai nagusiarekin, fededunek otoi egin dezaten, nork bere deboziozko santuari, eta Gure Jaunari eska diezaiotela haien penetatik libratzeko; beste alde batetik, berrogei barkamen-egun eman zizkien horrela otoitz egiten dutenei, otoitzaldi bakoitzeko".

Heriotza bat-batean etor daitekeela gogoraraztea eta, garbitokiko nahiz infernuko sufrikarioak nozitu nahi ez baziren, behintzat, ordua iristen zenerako prestatua egoteko beharra behin eta berriro aipatzea gizartea kontrolatzeko trena nabarmenak izan ziren Aro Moderno osoan.

Pentsamoldearen eta lurraz haraindikoari buruzko jokabideen kontrol horretaz gain, Elizak kontu handiz zaindu zuen munduari estu loturiko beste gauza batzuk, hala nola, gizonen eta emakumeen arteko hartu-emanak. Arlo horretan, dantzaldia izanik sexu biak espazio berean egoten zireneko jolas-aukeren bakanetako bat, jarduera horretan ager zitekeen zeinahi moralitasunik eza ezabatzen ahalegindu ziren. 1662ko bisitaldian, Parrokiako Lantegiaren Kontu Liburuan idatziz jaso zen kleroa izugarri kezkatzen zutela "arinkeriak, aferak eta istiluak sortzeko joera zuten dantza haiek, gazteriaren hondamendi eta gazteen arimen galbidea".

Gizon eta emakumeen arteko harremanak arautzea izan zuten eliztarrek kezka nagusietako bat. Aldez edo moldez saihestu nahi zituzten ezkontza aurreko harremanak eta ezkongabeak elkarrekin bizitzea. 1664ko bisitaldian, ohar hau idatzi zen: "kontuz ibil bedi abadea ezkontzeko asmo dutenak batera bizi ez eta elkarrekin egon ez daitezela, eta hori eginez gero, ez ditu ezkondu behar ezta haiek egina ostendu ere, eta epaimahaiari emango dio horren berri, haren aurrean ager daitezen" ³⁷.

Badirudi denbora aurrera zihoala, eta, antza denez, elizakoen ahalegin guztiak gorabehera, moralitatearen aurkako jokabide guztiak ez ziren deuseztatu. Beharbada, horregatik ekingo zioten behin eta berriro betiko gai. Horrela, 1662ko uztailaren 30ean, Bernardo de Ontiveros gotzainak honako mandatu hau egin zion Leioako abadeari:

"azaldu iezaezu kristau-ikasbidea sinestunei domeka guztietan, eta ez zuritu zeure burua eskolako maisuaren aitzakiaz, buruz ikasi behar dutelako esanaz, eta ez utzi azalpen hori abenduko eta Garizumako domeketan erabiltzeko, fededunen arimek ikasbidearen laguntza eta espirituaren bizigarri hori behar baitute konfesatu eta bertutea elikatzeke; halaber, arestian esandako domeka horietako batean, irakats iezaezu kontzientziak zelan aztertu, konfesatu eta egindako hobengatik atsekabetu. Eta hori guztia egiteko, eguerdiz geroztiko ordua hautatuko du eta ezkila jo dezatela aginduko du³⁸ guztiak elizara joan daitezela. Eta, horrezaz gain, abenduko eta Garizumako domeketan: sermoirik ez dagoen egunetan, ebanjelio santua modu errazean eta argiro azalduko die fededunei, Trentoko Kontzilioak eta Sinodoaren Konstituzioak azaltzen duten eran, eta gai hori betebeharrak larria denez, ez zaio beste manurik eta zehazpenik ezartzen = Gainera, Jaun prestu txit horrek igarri du gotzain-barruti honetako abadeek moralaren gaiak eta gure fede santuaren adimen zehatzaren gaitan jantzeko beharra dutela. Kalte horiek konpontzeko, agintzen dut elizate honetan dagoen abadea eta elizaren behe-ordenako osterantzeko kleriko guztiak hilean bitan joan eta Sondikako elizateko abade eta osterantzeko benefiziodunekin batu daitezela (...) Halaber, jaun txit prestu hau ohartu da lurralde honetako gizon eta emakume gazteak dantzan ibiltzen direla jaiegunetan, eskutik oraturik, baina ez jainkoa gurtzeko, ezpada, eurak olgetan ibiltzeko: Min hartu dut kristautasun eta noblezia handiko jende hauen artera gehiegikeria hori sartu dela jakitean, arinkeriak, aferak eta istiluak sortzeko oso emanak baitira dantza haiek, gazteriaren hondamendi eta gazteen arimen galbidea. Kalte horiek artezteko, agintzen diot elizate honetako egungo abaderi, bera abade den denbora guztian, dantza horietan ibiltzen diren eliztarrei kontu egin diezaiela sarritan sermoi eta deietan, eta haien lotsagabekeria gaitzetsi egin dezala, alberdania horiekin ospatzen baitzen jainko aizunen jentiltasuna; benetako kristauek ez bezala, jaiegunak jainkoa gurtzeko egintzen bitartez gorde beharrean, arinkeriekin profanatzeko dituzte eta Jainkoari laido egiten diote. Hortaz, Jainkoak eskatzen die elizate honetako fededunei eta gobernatzaile guztiei dantzak eragotzi ditzatela, beren eskura dituzten bitarteko guztiekin, elizatean bertan nahiz hemengo etxe eta basetxe guztietan, eta elizatearen eremu osoan; halaber, ohartarazten zaie dantzei uzteko mukur agertzen badira, erantzukizun larria egotziko zaiela eta egintza horiek eragindako hobengatik bizkarreratu egin beharko dituztela (...) ez eman dantzan ibiltzeko baimenik eman elizatean, ezta bere jurisdikzio osoan ere, eta gehienez, baimena eman gizonak bakarrik dantzatzeko, hala nahi izanez gero, edo emakumeak bakarrik, baina ez onartu gero elkarrekin aritu daitezela, olgetan, eta hauxe bete dezatela; bestela, eskumiku nagusia ezarriko zaie (...) eta abadeak jakinaraz beza. Eta Jaun txit prestu honek jakin duenez abadeek ere dantzetan parte hartzen dutela, eta herriko tabernetara joaten direla, eta sekularrekin jokoan aritzen direla eta etxera jokatzeko gonbidatzen dituztela, Elizaren izena guztiz galtzeko bidean jartzen dutela. Agindu nien eta agintzen diet gaurtik aurrera ez dezatela parte hartu dantza horietan, tabernetara ez daitezela sartzen eta jokoari buruz ez

daitezela mintzatu (...) sekularrekin, eta etxera gonbida ez ditzatela; bestela, eskumiku nagusia ezarriko zaie (...)"³⁹.

Kleroak janzkera ere arautu nahi izan zuen: 1671n, Gabriel de Esparza jaun prelatuak ediktua aldarrikatu zuen honako hau debekatzen zuela: "andre batzuk elizetara sartu eta jainkoaren elizkizunak entzuteko erabiltzen zuten bularraldeko eta bizkarreko biluztasuna".

Elizaren jardunbide arteza izan zedineko kezka beste gai batzuetara hedatu zen, hala nola, parrokiako liburuaren egoera ona izatera, horiek baitziren demografia aztertzeke lehen estatistika iturriak. 1691n, San Ignazio Loiolakoa jaurerriko zaindari bihurtu eta hamarkada batera, Pedro Sáenz de Villalba bisitariak honako hau agindu zuen "guraso eta aitita-amamen sorlekua ager dadila; bestela, 4 dukateko isuna ezarriko da"⁴⁰. Urte horretan, auzi luze baten ostean (gogora dezagun Leioako parrokia Erandiokoaren ordainpekoa zela, 1526an bereiztu zenetik, eta Erandioko kabildoak hautatzen zituela abadegaiak) Kalagorriko gotzainaren eskumena lortu zuten abadea hautatzeko, eta, horrela, beretzat eskuratzen zituen lehen ondoko elizatearen kutxetara joaten ziren detxemak. Egitate horrek garrantzi handia izan zuen eta Eusebio de Uríbarri eskribauak berria jakinarazi zien auzotarrei euskaraz⁴¹.

Denbora joan, denbora etorri, eta XVIII. mendea iritsi zen. Garai hartan, aurrekoetan bezala, eliza katolikoak politika, ekonomia eta gizarte arloko botere izugarria zuen. Fededunekin harreman estuagoan zeuden kleroko kideak, hots, parrokiako abadeak, elizako kideen kopuru txikiena ziren; askoz ere gehiago ziren, neurrian gaindika, erlijio-ordenetako kideak eta benefiziodunak, eta hirigune aberatsetan bizi ziren, esaterako, Bilbon. Arauzko klerikoak espirituaren zuzentzan, presoak askatzen eta maileguak ematen aritzen ziren, eta funtsezko eginkizuna betetzen zuten. Eginkizun hori Leioan ere izan zen funtsezkoa; izan ere, Bilboko eta Leioaren inguruko komentuek ondasun asko zeuzkaten Leioan, ordezeko abadea hautatzen baitzen bertan ohikoa abadea gaixotuz gero⁴². Esate baterako, 1715ean, Burtzeñako komentuko Pedro de Alango mesedetakoak José de Gasteluzak benefizioduna ordeztu zuen, hori gaixorik baitzegoen. 1717an, Pedro de Uribarrik, Erandioko kapilauak, ordeztu zuen, eta 1720an, Gasteluzak hil zen urtean, San Mames komentuko Antonio de Elorriaga frantziskotarrak eta Erandioko kabildoko Miguel Antonio de Elorduyk ordeztu zuten.

Mende horretan, botere zibilaren eta espiritualaren arteko harremanak, aurreko garaietan horren zailak izanik, baretu ziren. Aldi berean, gurtzearen inguruko aldaketa batzuk egin ziren, hala nola Ama Birjinarenganako eta haren deitura guztienganako debozioa, eta Arrosarioa⁴³. Halaber, agintari zibilak saiatu ziren erlijio-betebeharrek ekonomia oztopa ez zezaten, eta, horretarako, 1744ko Batzar Nagusietan erabaki zuten eskabidea helaraztea Aita Santuaren Nuntzioari, "Bizkaiko nekazariak lurra lantzea izan zezaten jaiegunetan", baina jainkoaren elizkizunetara joanda. Fedea agertzea oso garrantzizkoa zen, gurtza egiteko lekuak egoera onean edukitzea bezain garrantzizkoa; horregatik Juan Luelmo y Pinto jaunaren bisitaldiaren ostean, honakoa agindu zen: "ez daitezela bortxaz ireki

baselizetako sarrailak", eta Leioako abadeak ohar hau erantsi zion: "aginduaren edukia euskaraz jakinarazi neuntsen"⁴⁴. 1775ean zenbait obra egin ziren elizan: hilobi gehiago egin zituzten eta koru berria jarri zuten.

XIX. mendera hurbildu ahala, aldaketa batzuk gertatu ziren, eta, apika, erlijioa sentitzeko beste modu bat ekarri zuten. Hain zuzen ere, 1784an, debekatu zen pulpitutik iragartzea hildakoen omenez egin beharreko mezak eta otoitzak "familien harropuzkeria eta haien arteko lehia saihesteko". Horrek erlijio-sentimendua barruratzen ispilu da, aurreko aldiotako nabarmenkeria eta handikeriaren aldean. 1787an, erlijio-pentsamoldearen inguruko beste aldaketa esanguratsu bat jazo zen. Izan ere, Karlos III.a erregeak urte hartan aldarrikaturiko Errege Agindu batean, elizaren barruko lurperatzeak debekatu eta hilerrietan egiteko xedatu zuen. Beraz, lehengo hilerriak konpondu eta berriak eraikitzea sustatu zen. Leioan, hilerria prest egon zen 1791n. Urte hartan ere, Francisco Mateo Aguiriano Gómez jaunak egin zuen bisitaldia, eta honako hau adierazi zuen: "Eliza honetako hilerria ez dago sendo finkaturik, eliza zabalegia delako. Horrela, arrakalak etengabe ageri eta teilaberritze-lanak egin behar direnez, diru nahiko xahutzen da. Ez litzateke hori egin beharko lekua estutzen bada; gainera, hilerriak hesirik ez daukanez sarreran, askotan sartzen dira bertara aziendak eta leku santua lohitzen dute; abadeari agintzen diot kana bi txikitu dadila hilerria eta sarrera zarratu dadila burdinazko hesiekin". Ez dakigu, ordea, hildako gehienak hilerrian bertan edo eliza barruan lurperatzen ziren, jaurerriko beste leku askotan, XIX. mendera arte, egiten zuten moduan⁴⁵.

Gizarte-gatazkak

Parrokiako eliza populazioaren bilgunea zen eta elizateko erakunderik aberatsena. Nondik eskuratzen zituen diru-sarrerak, baina? Elizak, eta hain zuzen ere, erretoreek eta benefiziodunek, detxemak eta hasikinak, uztaren hamarrena, biltzen zituzten. Gainera, dohaintzak jasotzen zituen (dirutan nahiz gauzatan -olioa, ezkoa, garia, eta abar- nahiz erlijio-apaingarrietan), bai eta norbanakoen legatuak ere, batzuek diru-kopuru handia lagatzen baitzioten elizari euren arimaren aldeko mezak egiteko. Diru-sarrerak larriak baziren ere, parrokiako kontuek (ez dugu 1663-1770 aldiko daturik) defizita eragiten zuten.

Abadeek detxemen zati bat jasotzen zuten mantenerako, baina zenbaitetan zentsu-sistema erabili zuten, eta horretan irabazitako mozkinak erabili zituzten lurrak eta aziendak erosteko. Sarritan, horiek ere admeterian lagatzen zituzten. Gainera, kapilautzetatik ere eskuratzen zituzten mozkinak.

Leioan, herriko jendeak ez dio sekula errezelo edo goganbarri izan elizakoen estamentuak zeukan aberastasunari. Beharbada, Leioako kleroaren egoera apal samarra zelako, beste parrokia aberats batzuen aldean. Antza denez, abadeekin izan ziren liskar guztiak gertatu ziren abadeak sartu zirelako eliztarren eguneroko bizimoduan. Hori zela eta, abaderen batek salaketa larri eta buruhauste izugarriak izan zituen. Esaterako, Antonio Francisco de Abendaño, Leioako abadea 1769an⁴⁶. Tabernak gaueko orduetan ixteko kanpainan parte hartu ostean, zenbait auzotarren prozedura ez-zilegiak salatu zituen,

hala nola, Pedro de Sagasti, lukurreriatik, edo Juan Antonio de Elorrieta⁴⁷ eskribaua, sinadurak faltsuztatzeagatik. Abadearekiko mendekuan, "kontinentziarik eza" leporatu zioten, adingabeko baten lekukotasuna tarteko zela. Horren ondorioz, neskamea bidali behar izan zuen etxetik, haren ohaidetzari buruzko zurrumurruak isilarazteko. Beste alde batetik, Juan Antonio de Ugarte, Erandioko benefizioduna eta Abendañoren etsaiak, itundutako irtenbidea eskaini zion, Juan de Zarraga, "neska gazteekin izandako harreman debekatuak" zirela-eta ezaguna zen Erandioko abadea bitarte zela. Irtenbide horren arabera, Abendañok alde egin behar izan zuen. Gainera, Sagasti, Elorrieta, Matías de Alango eta Francisco Javier de Beraza sakristauak abadearen ondraren aurkako publizitatea egin zuten. Horrez gain, sakristauak eta emazteak abadea jo zuten. Azkenik, abadeak alde egin zuen elizateetik eta Francisco Javier de Basagoiti erandiotarrak hartu zuen haren lekua. Baina beste abade hori ere ez zen on hutsa, zorpeturik zeuden auzotar batzuen ondasunak atzeman zituen eta.

Kleroaren eta leioaztar "xeheen" arteko istiluez gain, azken talde horretako kideen arteko liskarrak maiz gertatzen ziren. 1762an, Sagastiren seme bat (Abendaño abadeak lukurreria leporatu ziona) erail zuten harekin tirabirak zituzten Getxoko auzotar batzuek⁴⁸. Sagasti zelako horrek liskarraldi ugari izan zituen gainerako auzotarrekin, eta 1768an eraso egiteagatik salatu zuten⁴⁹. Elorrieta eskribaua, "Abendaño auzian" nahasitako beste bat berriro salatu zuten 1772an, agiriak faltsuztatzeagatik, eta bere alde egiten saiatu zen "irain eta kalumniengatiko" auziak jartzen⁵⁰.

Beste alde batetik, parrokiako kabildoak eta tokiko eliteek ere behin baino gehiagotan argitu behar izan zituzten batzuen eta besteen aldeak. Askotan gertatu ziren ekonomia zergatiko gatazkak nagusi laiko eta haien administratzaileekin. 1678an, Pedro de Etxabarria lizentziadunak, Erandio eta Leioako abadea eta benefiziodunak, tirabirak izan zituen Juan Antonio de Basurto, Ciudad Realeko dukearen ahaldunarekin⁵¹. Mende bat eta urte batzuk geroago, 1791n, honako ohar hau jaso zen parrokiako fabrika-liburuan: "kontuak argitu ditzatela detxemen nagusiek, Mortarako markesa eta María Ordóñez de Barrycua, Barrycuako dorrearen jabea, erdiz bana jasotzen dituztenak"⁵².

Gatazka horiek guztiak gertatu ohi ziren elizateko gizarte eta ekonomia arazoak larriagotuz zihoazelako. Prezioek gora egiten zuten, eta behartsuenek gero eta argiago zuten eliteko kideak zirela haien zoritxarraren erantzule. Hori zela eta, gizarte altxamendu batzuk gertatu ziren, hala nola, matxinadak edota karlistaldiak (beste arrazoi batzuegatik ere gertatu arren).

BARNE POLITIKA

Politika eta administrazio antolakuntza eta foruen sistema

Giza taldeen antolaera eta horien arteko harremanak nolakoak ziren jakitea funtsezkoa dugu Erdi Arokoa izan eta gaur egun arte (aldaketa askorekin, ordea) iritsi den sistema baten ezaugarriak ulertzeko. Hori dela eta, sistema horren ezaugarri behinenak azalduko ditugu, baita sistema osatzen zuten erakundeak eta horiek zelan aritzen ziren ere, oinarri-oinarritik botere gaileneraino.

Elizatea dugu Goiz Erdi Aroan alde geografiko zehatzetako giza multzoen interes erkideak konpondu eta defendatzeko sortu ziren landa-guneen erakunde-emaizta, eta oinarrizko erakunde politiko eta administratiboa izan zen Bizkaian, Lur Lauan edo Infantzoierrian, hau da, Bizkaiko gunean harresiturik ez zegoen eremuan -hiribilduak, ordea, harresiturik zeuden-; era berean, gaur egun udalerrri esaten diogun horren aurrekari hurbilena da. Lurralde biltzeko eta egituratzeko ekintza horretan, zeregin erabakigarria bete zuten parrokiatako eliz mugapeek; hala, haien gizarte garrantzia erlijioaren arlotik zibilera bilakatu zen. Izan ere, elizate berba bera antzina auzotar guztiak garaian garaiko arazoei buruz eztabaidatu eta konpontzeko batzen ziren (kontzeju irekia) lekutik dator. Elizkizunaren une jakin batean, meza nagusiaren ostean, hain zuzen ere, prozesioan irteten ziren, eta prozesioaren buru gurutzera zeramatela, gelditu egiten ziren eta "gurutze geldiaren asanblada"⁵³ zeritzona egiten zuten. Beste batzuetan, meza amaitutakoan, herritarrak batzen ziren elizako arkupeetan, xede horretarako. Elizate berbak (elizako atea) horixe bera esan gura du. Denbora igaro ahala, bilera horiek ondore horretarako eraikitzen ziren udaletxeetan egiten ziren.

Sindikoko batek edo batzuek, edo fiel errejidoreek, gobernatzen zuten elizatea -Leioan bakarra zegoen-, elizateko biztanle kopuruaren arabera. Udal batzarrak hautatu ostean, kargua urtebetean betetzen zutenak udalburuak izan ohi ziren, eta auzotarren batzarrak hartutako erabakiak betearazi, udalaren propioak eta zergak bildu, herriko bideen egoeraz arduratu, elikagaiez hornitu eta jaiak egiteko baimena ematen zuten, besteak beste. Garaiak garai, sindikoen eta gaurko alkateen eginkizunak oso antzekoak dira. Fiel errejidorea izateko, betekizun batzuk bete behar ziren, hala nola, elizateko auzotarra edo bertan sortua izan, ondasunak eduki bertan, jatorriz bizkaitarra edo kaparea izan, kristau zaharra, eta lanbide mekanikorik ez izatea.

Bizkaian, Eremu Lauan zeuden 72 elizateak eta merindadeetan elkaturiko hiribilduak eta hiria Gernikako Batzar Nagusietara joaten ziren.

Hiribilduak elizateen juridisdikziopeko lurraldean sortu ziren, eta foruetan edo hiri-gutunean ezarritako berezko legeriaz baliaturik, eragin handia izan zuten haien inguruan, baita gatazkak ere sarri askotan. XIV. mendean, merindadeak ondokoak ziren: Uribe -Leioa bertakoa zen-, Arratia, Busturia eta Markina. Geroago, Zornotza, Bedia eta Durangokoa eratu ziren. Elizateak, hiribilduak eta Urduña hiria, merindadeen kide ziren aldetik, Merindadeko batzarretan batu eta Batzar Nagusietara joaten ziren, foru deiaren hurrenkeraren arabera. Hurrenkera horrek antzinatasuna hartzen zuen kontuan eta Uribeko merindadea lehena zen.

Agirietan, 1558an aurkitu dugu lehen aldiz jasota Leioako elizateko ordezkari bat Batzar Nagusietara joan zela. Juan Urtiz de Bidaurrezaga joan zen batzarretara Leioako ahaldun gisa.

Bigarren mailako leinuak, nagusi dibiseroak eta eskribauak ere, sarritan elizateetako eliztarrak, batzarretarako ahaldunak izan ohi ziren. Batzarretan, ahaldun bakoitzaren egiaztagutuna aurkeztu eta gero, eta ahaldun guztiak nor bere lekuan jarrita erregeen erabakiak irakurtzen ziren, foruaren aurkakoak zirenetz eztabaidatzen zuten, eta, aurkakoak ez baziren "foru baimena" ematen zieten; ondoren, ahaldun bakoitzak bere ordezkarien arazoak azaltzen zituen, jaurerri osoari eragiten zizkion arazoak (pisuak eta neurriak, erromesak kanporatzea, oinarrizko beharriaztarako produktuez hornitzeko arazoak zelan konpondu, ostatuak edo bentak egokitzea, komunikazio bideak mantendu eta konpontzea, jaunaren errentak, bizkaitartasunak ematea, eta abar), legeak idazten ziren herrialdea hobeto gobernatzeko, eta jaurerriko karguak hautatzen ziren (alde bakoitzeko hiru prokuradore edo ahaldun hautatzen ziren ausaz, eta horiek diputatu bi, diputatuorde bi, hamabi errejidore⁵⁴, sindiko bi, idazkari-eskribau bi eta diruzain bi hautatzen zituzten, alde bakoitzeko erdia).

Araza asko eta asko konpondu behar ziren, eta, hartara, batzar ugari egin behar ziren; ez zen erraza, ordea, ahaldun guztiak batera biltzea, eta, hortaz, organo erdi-iraunkorrek eratu behar izan zituzten: Errejidoretza Nagusia -1500ean eratu zen eta jaurerriko Gobernu Unibertsalaz ezagun izan zen 1630etik aurrera- eta beste bi errejidoretza berezi (bata lurralde irekirako eta bestea hiribildu eta hirirako), 1570ean sortuak. Jaurerriko gobernu Unibertsala, Bizkaiko benetako botere betearazlea, hiru hilerik behin batzen zen, korrejidorea zuen burua eta hamabi errejidorek, ahaldun nagusi bik, sindiko bik, idazkariak, aholkulariak eta diruzainek osatzen zuten⁵⁵. Organismo iraunkor hori eratu zenetik, batzarrak ez ziren horren maiz egiten, eta, azkenik, astebetean batzen ziren uztailean, urte birik behin. Hala ere, handik lasterrera, Errejidoretzaren bilerak ere ez ziren nahikoak, eta 1645ean Aldundi Nagusia eratu zen. Errejidoretzaren organo eskuordea zen aldetik, jaurerrira iristen zen postaz arduratu eta premiazko gaiak konpontzen zituen. XVII. mendearen amaieran, Errejidoretza Nagusitik lokabetu zen, eta gero eta eskumen gehiago bereganatu zituen, aurrekoaren kaltetan. Hala, zuzendaritza eskuratu zuen Batzar Nagusietako korrejidorearekin batera -horietan hizpidea zuen, baina hautespiderik ez-, Bizkaiko armadaren burutza, eta errenta eta arielak biltzeko eskumena; hortaz, denboraren poderioz, politika organorik gailena bilakatu zen.

Korrejidorea eta Korrejidoreordea (lehenengoa ez zegoenean, bigarrenak hartzen zituen bere esku haren zereginak eta elizateetarako bisitaldiak egiten zituen), erregearen ordezkariak ziren batzarretan. Justizia administratzen zuten eta kontrol, ikuskapen eta tartekaritzako polita eta administrazio eginkizunak zeuden haien esku. Udalek kontuak eman behar zizkieten urtero, baina, aldi berean, kontu handiz begiratzen zen korrejidore eta haren ordezkoreen jarduna; haien kargu-aldia amaitutakoan, egoitza-epaiketa egiten zieten, nagusikeria erabili izan ote zutenetz erabakitzeko.

Mende askotan, jaurerria arautzeko legeak, eta bereziki Leioako elizatea arautzeko legeak, azturazkoak ziren, hau da, idatzi bakoak, eta erabilerak eta ohiturak berresten zituzten, zilegitzat jotzen ziren egintzen errepikapenean oinarriturik. Idatzizko legea geroago agertu zen, denentzat kaltegarritzat

hartzen ziren egitateak galarazteko. Horrela, 1342an (Batzar Nagusien bilera bati buruzko lehen idatzizko aipamena aurkitu dugun urtea; nahiz eta jakin dakigun Batzar Nagusiak XI. Aurretik ere bazirela), Forua eta Ermandadearen Kapitulazioak idatzi ziren, leinuen arteko gatazkak zirela eta, jaurerrian nagusi zen bortizkeria apaltzeko, Geroago, 1452an, Batzar Nagusiek korrejidoreari eskatu zioten bizkaitarren pribilegioak, eskubideak eta askatasunak idatz zitezen, eta horiek guztiak Foru Zaharrean jaso ziren. 1527an, foru zaharra gaurkotu, eta Foru Berria idatzi zen, eta 1877ra arte indarrean egon zen.

Foru horrek ez zituen lege guztiak jasotzen, ezta gutxiago ere, eta, beraz, herri xedeak arautzat erabili zituen azturazko zuzenbideak eta idatzizko zuzenbideak ezartzen zituzten. Leku batzuetan, batez ere hiribilduetan, berezko legeak eta udal ordenantzak idatzi zituzten. Beste alde batetik, Bizkaiko jaunek foruak zin egiten zituzten. 1379tik aurrera, Bizkaiko jaunaren titulua eskuratu zuten Gaztelako errege-erreginek. Urte horretatik aurrera, 1814ra arte, foruak errespetatuko zituztela zin egin zuten. Foruak ekonomiaren protekzionismoa ezartzen zuen: nekazaritza produktuen inportazioa ahalbidetu eta trabak jartzen zizkion esportazioari, Bizkaiak mentsa baitzuen horietan. Zerga eta armada salbuespenak ere arautzen zituen, eta "borondatezko dohaintza" bihurtu ziren, erabat instituzionalizaturik. Berariazko zuzenbide zibila zeukan, eta horrek familien haga arautzen zuen (jabetzaren zatiezintasuna ezartzen zuenez, baserria iraunarazten zuen familiaren ekonomiaren oinarri gisa), testamentua egiteko askatasuna eta ondasunen komunikazioa. Bestalde, kaparetasun unibertsalak karrera egiteko modua ematen zion askori administrazioan edo armadan.

Eliteak eta udaleko bizimodua

Jaurerrian ezarrita zegoen gobernu era aztertu ondoren, udalaren gobernuaren ezaugarriei nabarmen eragin zioten gai batzuk aletuko ditugu.

Aro Modernoan gertaera garrantzitsu bat jazo zen, kontzeju irekitik itxira igaro baitziren. Gertaera hori apurka-apurka jazo zen, Batzar Nagusietako kideen pixkanakako elitizazioarekin batera. Hasieran, auzotar guztiek bazeuzkaten hizpidea eta hautespidea, komunitatea ukitzen zuten arazoei dagokienez. Hortaz, guztiak ziren kontzejuko kide, guztiak ziren hautesleak eta guztiak hautagaiak udal karguak betetzeko. Batzarretako ordezkari izateko betekizunak ziren kaparea edo jatorriz bizkaitarra izatea, auzotarra izatea, edo, hori ezean, bertako bizilaguna izatea gutxienez 10 urtean, zorrik ez edukitzea errepartimientoen ordainketan, eta pertsona egokia eta gauza izatea. 1614tik aurrera, Batzar Nagusietako prokuradoreei eskatu egin zitzairen gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakitea. Hamar urte geroago, aurreko eskakizunaren osagarri gaztelaniaz ondo ulertzea erantsi zioten. Horregatik, Juan de Larrinaga ahalduna errefusatu zuten urte hartan, eta horren ordeztan Antonio de Uríbarri y Alzaga hautatu zuten. 1625ean, Martín de Bidaurreaga errefusatu zuten, eta haren ordeztan Erandioko Juan Ortiz de Asua Getxo y Martiartu (Martiartutarren leinuko ondorengo zuzena; jaurerriko diputatu nagusia izan zen 1626an), lehendik diputatua zen Pedro de Urasandi Martín de Alzaga sindikoa hautatu zituzten. 1628an

Pedro López de Artaza errefusatu zuten eta Juan de Iturri bidali zuten. 1630ean ezarri zuten ezin zirela Batzar Nagusietarako ahalak izan lanbide mekanikoak zituztenak, eta 1748an, ahaldungaiak 20.000 dukat baino gehiago izan behar zituzten onibarretan.

Jaurerriko gobernuan parte hartzeko modua mugatzen zen bitartean, gero eta betekizun zorrotzagoak bete behar ziren udalaren gobernuan esku hartzeko, hain zuzen ere, fiel errejidore eta sindikoaren karguak eskuratzeko. Horregatik, 1766ko maiatzaren 5ean, Karlos III.ak, udalak demokratizatzeko ahaleginean, gehiengoaren diputatu eta sindiko-prokuradorearen lanbideak ezarri zituen, eta herri bozketaz hautatu behar ziren kargu horiek. Horrek, jakina, oligarkia menderatzaileak kezkatu zituen. Kargudunek legearen eta herri interesen alde egitea zituen eginkizun nagusiak, eta, beraz, kargu horiek bereganatzen zutenek lege eta kultur prestakuntza handia izan behar zuten. Esan gabe doa gizarte eta ekonomia maila handiko pertsonak ez besterik zutela horietarako modua. Karguak ezin ziren jaraunspenez hartu, baina gizarte mailak erabat baldintzatzen zuten karguotarako irispidea. Urterik urte kargudun izan ziren elizatarren zerrenda aztertuz gero, ohartuko gara zenbait deitura behin eta berriro agertzen direla, eta dinastia hutsak eratu zituztela udal gobernuan. Gainera, elizatea gobernatzeko betekizunak benetan betetzen ziren hertsiki-hertsiki jakoten zen, eta, horren ondorioz, auzotartasun bikoitza zela eta, bateraezintasunagatik salaketak egin ziren.

Udal-kontuak

Udal kontuen azterketan oinarriturik (1770-1830 aldikoak izan ezik, Lehen Gerra Karlistan galdu baitziren), badakigu 1730 eta 1770 urtean artean⁵⁶, diru-sarrera bakarrak Lejonagoitia eta Udondo auzoetako lapurretatik zetozela, eta ez -egon bazeuden arren- herri basoetatik, ez harrobietatik, ez Portugaletera igarotzeko ontzitik. Mentsa zegoenetan, data-ren ordainketa, hau da, zorren ordainketa, fogeren artean banatzen zen.

Denbora joan ahala, udalaren zorrak handituz joan ziren, batez ere Karlistaldietan. Lehen Karlistaldiaren ostean, non Leioan borroka asko izan ziren eta militarrek atzeman zuten, udal altxorak aurre egin behar izan ziren eskari askori, eta horrek kalte handia ekarri zien auzotarren egoera ekonomikoari. Kasurako, 1842an, udalak ardoaren arielaren gainordaina eskatu zuen. Urtero edaten ziren 400 pgarra bakoitzeko 5 erreale gehiago ordainduta, bideak konpondu eta oinarritzko eskolako maisuren soldata ordainduko zen. Hala ere, aurrekontuak ez ziren batere finkoak, batik batik, karguak bidegabeki erabiltzen zituztenen eroste-ahalmena murrizten zenean.

Udal kutxen arazo ekonomikoek kaltea ekartzen zieten haien mendeko zerbitzu guztiei, hala nola, irakaskuntzari, osasungintzari eta, 1851tik aurrera, gurtza eta kleroari⁵⁷. 1856an, Pedro Felipe de Ajeok, oinarritzko hezkuntzako maisuak, 400 errealeko igoera eskatu zuen, urtean kobratzen zuten 2.000 errealeko soldataren osagarri, udaleko idazkari lanetan ere bazebilelako. Igoera errefusatu ez eze, 3 urte geroago soldata beheratu zioten 200 erreale. 60ko hamarkadan, egoerak hobera egin zuen eta

1867an 4.000 erreale poltsikoratzen zituen. 1855ean, Vicente de Goiti zirujauaren zuzkidura gari eta arto espezie bakoitzeko anega erdi eta 100 errealekoa zen, udal fondoan kontura, baina 500 errealera igo zioten baldin eta zaldi bat mantentzen bazuen bere kontura, "hala eskatzen zuten auzotarrei zerbitzua emateko". 1857an, sakristauaren postua hutsik zegoen, lanpostu horri zegokion zuzkidura lakari bat arto eta beste bat gari zelako, etxe bakoitzeko.

Bigarren karlistadak iraun zuen bitartean ere, zamak handiak izan ziren. Leioak arrazio ugari eman zizkien destakamenduei nahiz inguruetan zebiltzanei, geroago ikusiko dugun bezala.

Arazoak guztiz desagertu ez baziren ere, neurri handian apaldu ziren Aldundiak bere esku hartu zuenean administrazioa, eta gizarte-zerbitzu iraunkorrak -bai ekimen pribatutik, bai erakundeetatik- sustatu zituenean. Beste alde batetik, arielengatiko udal sarrerek nabarmen handitu ziren industrializazioa etortzeaz batera, baina hori beste atal batean aztertuko dugu.

KANPOKO POLITIKA:

ARMA ZERBITZUAK ETA GERRA GATAZKAK

Aro Modernoaren barruan, Espainiaren lurraldeak handitu ziren, eta horren eraginez, gatazka asko izan zituen beste potentzia batzuekin, Europan nahiz orduan ezagutzen zen munduan zuen boterea urritu nahi zutelako. Itsas nagusitasuna gogor borrokatu zen, eta Koroak armada sendoari eutsi nahi izan zion. Horretarako, karrerako marinela baliatzeaz gain, marinela errekrutatzen zituen. Horiek borondatezkoak ziren hasieran, baina derrigorrezkoak bihurtu ziren apurka-apurka.

1582an, lehen errekrutatze horretan 300 gizon eskaini ziren Tercera uharteak, egungo Azoreak konkistatzeko ontziterian aritzeko. Sopela, Getxo, Algorta eta Leioa artean, 6 marinela eman zituzten. Sei urte geroago, 1588an, "Bizkaiko ontzidiak" Juan Martínez de Rekalderekin agindupean, Itsas Armada Garaiezinan parte hartu zuen. Bizkaiko gizon asko galdu ziren: "Getxo, Berango, Leioa eta Sopelako elizateetako ia guztiak zendu ziren ahaleginean eta oso lermaturi itzuli ziren jaurerriko beste leku batzuetako marinela-kopuru edo kupoak". 1593ko abuztuan, jaurerriak Felipe II.aren beste zedula bat igorri zuen, marinela-kopuru handia eskatzeko "jaurerri horretakoak onak eta zerbitzu handikoak direlako, horien beharra dut". Leioak, Getxok eta Erandiok 10 marinela eman zituzten. Bizkaiak Koroari hainbeste itsasgizon ematen zizkionez, Lurralde irekiko 1614ko errejidoretzan erabaki zen ontziola eskatzea Zorrotzan. 1624ko apirilaren 17an, holandar ontziek eraso zezaketela eta, jaurerriko Batzar Nagusietan erabaki zen portuak eta kostak gotortzea, eta kapitainak hautatzea hiribildu eta elizate guztietan. Leioa eta Erandion, kapitain hautatu zuten Pedro de Urasandi diputatu jauna hautatu zuten. 1635ean, Errejidoretza Nagusian agindu zen bolbora hartzea portuak babesteko, frantziarren balizko eraso baten aurka. Urte berean, jaurerriak opari eman zizkion Koroari Zorrotzako ontziolan egindako galeoi batzuk, Indietako karreran erabiltzeko. Ontzi horiek Portugaleteko hondarperantz ateratze hutsa Bilbon eta Nerbioiaren bi aldeetako herrietan, baita Leioan ere, jaia egiteko atxakia nahikoa zen.

Baina bazen besterik, Abratik irten eta Abrara sartzen ziren itsasontziek eskaintzen zuten ikuskizuna zela-eta egiten ziren ospakizunez eta poztasunaz landa. Arriskua ere noizbehinka agertzen zen, 1637an esaterako. Talaiariak -Leioako Gazteluetako muinoetakoak, besteak beste- 60 edo 70 frantziar bela begiztatu zituzten eta ordara jo zuten. Frantziako ontziteriaren mehatxua zela eta, Leioak 24 gizon eman zituen portuak eta talaiak zaintzeko, Portugaleten, Getxon eta Leioan (Artatza eta Ondiz). Bilbotik jende armatua etorri zen, Getxo, Leioa eta Portugaletekoekin bat egiteko, eta hantxe egon ziren harik eta ontzi arerioek kostaldetik alde egin zuten arte. Soldaduen banaketan, Leioari 7 egokitu zitzaizkion. Urtebetegarrenean, etsaiak Portugaleten edo Lamiakon lehorreratuko zirelako zurrumurrua zabaldu zen, eta gero Bilbora joko zutela. Portugaleteko igarobidea defendatzeko, hesi-moduko bat eraiki zuten pinu-erborrekin, egunez irekitzen zuten eta gauz itxi. Armak egoera onean edukitzea agindu zuten, 100 gizon Sopelara joatea eta beste 200 banatzea Algortan eta Leioan (Gazteluetan arerioen ustekabea ekidingo zuten Abratik bazetorren, eta Ondizen itsasadarretik bazetorren). Ordara joz gero, apirilaren 30ean xedatu zen nortzuek babestu behar zituzten aldeak: Algorta eta Getxora Erandio, Sondika, Loiu, Berango eta Leioakoek joan behar zuten.

Errrege ontzidiari itsasontziak ematen zizkieten etengabe. Esate baterako, 1639an, "Concepción", "Presentacion" edo "Visitación", "Encarnación" eta "Natividad", Galiziako eskoadra osatzeko asmoz Zorrotzan egin berriak ziren galeoietako eskifaia antolatu zen. Itsasontzi horietan, 5 istinkari, 1 artillero, 1 itsasmutil eta 2 morroik izena eman zuten, guzti-guztiak Leioakoak⁵⁸.

XVII. mendea aurrera zihoan eta ez ziren gelditu Espainiako boterea urritzen ahalegintzen ziren erasoak. 1658an, ingeles ontziak Bizkaiko kostaldean lehorreratu nahi zutelako isilmandatua jaso zen, eta, hortaz, Artatzatik ke-seinaleak egiteko agindu zuten, Artatzatik ondo ikusten baitzen badia, baita Ondizetik ere, Nerbioaren aldetiko eraso saihesteko. Kostaldetik etor zitekeen arazoa ondo gogoan hartu behar izaten zutenez, talaiariak goizaldetik gauera arte zelatatu behar zuten ingurua. Etsaien itsasontziren bat egunez begiztatuz gero, ke-seinale bakarra egin behar zuten 4 itsasontzi baziren, 2 seinale 8 itsasontzi baziren, 3 seinale 12 itsasontzi baziren, 4 seinale 16 baziren, eta gehiago izanez gero, ahal beste seinale. Gauz begiztatuz gero, beharrezko su guztiak piztu behar zituzten.

Denbora joan ahala, Espainiaren egoera aldatuz joan zen potentzien sailkapenean, baina soldadu-emateek ez zuten etenik izan. 1699ko maiatzaren 19an, 623ko marinel-kopurua eskatu zioten jaurerriari, gure portuetan egiten ziren itsasontzietan aritzeko; une hartan, Leioak 4 marinel eta 2 itsasmutil eman zituen. XVIII. mendean ere segitu zuten errekrutatzeek. 1700 eta 1730 urteen artean, 9 errekrutatze egon eta hiruna leioaztar joan ziren. Baina gatazkak areagotu zirenez, Koroak marinel-kopurua handitzea eskatu zuen, 6 gizonetik 10era. Horrek gaitzespen bizia sortu zuen, gero eta nabarmenagoa. Horrela, 1739an, Leioa, Erandio, Loiu eta Sondikak urte horretako errekrutatzean eskaturiko 350 gizon-kopurua itzultzea galdatu zuten, beste 11 elizatek, besteak beste, Sopela,

Sukarrieta eta Busturiak, zeukaten egoera berdinean zeudelakoan, besteetako gizonak ez baitziren onartu "nekazariak eta itsasorako gauza ez zirelako"⁵⁹.

Gero eta gehiagotan, batez ere ekonomiaren egoerak hartarako modua ematen zuenean, errekrutatzeak osatzeko ordezkioak bilatzen ziren. 1740an, 3.875 erreal ordaindu zieten Leioan 2 frantses, 2 galiziar, Otañeseko bat eta Gueñeseko beste bati, elizateko auzotarren partez izena emateko⁶⁰. 1757an, Leioak marinela bakarria eman zion Erregearen Itsas Armadari, Ferrolen. Batzar Nagusiek 1760an egindako itsasgizonen errolda batean oinarriturik, badakigu Leioan itsasmutil bi zeudela. 1767ko urtarrileko banaketan, Leioak itsasmutil bat eman behar izan zuen San Juan Nepomuceno itsasontzian aritzeko. Itsasontzia Guarnizoko (Kantabria) ontzian egin zen. 1795ean, Leioak beste marinela bat eman zuen. Konbentzioaren Gerran, auzotarrak behartu ahal zituzten Gipuzkoako frontera, frantses errepublikazaleen aurrera egitea geraraztera, joaten ziren tertzioak osatzera. Kanpaina horretan, Leioak 25 gizon eman zituen, eta horiek Ondarroara joan ziren bertako defentsan laguntzen, frantsesen balizko erasoaldi baten aurka. Frantziarekin bakea sinatu ostean, Ingalaterrak deklaratu zuen gerra, eta, beraz, gatazkek segitu zuten.

Errekrutatzeen aurkako arbuioa gorabehera, bigarren semeek sarritan aukeratzen zuten irtenbidea zenez, bizkaitar askok eta leioaztarren batek izena eman zuten profesionalen armadan. Kasurako, Leioako Diego Ordóñez de Barraicúa, zeinek 1707an Felipe V.aren aldeko Bizkaiko erregimentuaren agintea zuen, edo Manuel de Zuazo y Uribarri, Erregearen Artilleria Gorputzeko alferreza⁶¹.